

JARDUEREN MEMORIA

Datu Sozioekonomikoak

URTEKO TXOSTENA

2022



Bidasoa activa
Bidasoa bizirik

www.bidasoa-activa.com



Batzar Nagusia

José Antonio Santano Clavero. *Irungo Alkatea.*

Txomin Sagarzazu Anzisar. *Hondarribiko Alkatea.*

Administrazio-Kontseilua

Miguel Angel Páez Escamendi. *Presidentea.*

María Serrano Olascoaga. *Presidenteordea.*

Juncal Eizaguirre Rosa. *Batzordekidea.*

Xabier Iridoy Olaizola. *Batzordekidea.*

Santiago Jiménez Ussía. *Batzordekidea.*

Jokin Melida Beltran de Heredia. *Batzordekidea.*

Iñigo Manrique Cía. *Batzordekidea.*

Juan María Altuna Muñoa. *Batzordekidea.*

Estitxu Urtizberea Sorzabal. *Batzordekidea.*

—

Eva Fernández Tolosa. *Idazkaria.*



Zuzendaritza taldea

Eva Fernández Tolosa.

Zuzendari Gerentea.

María Climent Pons.

Ekonomia, Finantza eta Giza Baliabideen Arloa.

Virginia Gil Rodríguez.

Zeharkako Programak.

Vicky Alquezar Schepens.

Behatokia, Europako Lankidetzeta eta Patzuergoa.

Silvia Istillarte Pardo.

Lehiakortasuna eta Berrikuntza.

Izaskun Iridoy Olaizola.

Ekintzailletza eta Jarduera Berria.

Cristina Gutiérrez Alonso.

Turismoa.

Jose María Belloso Loyarte.

Formakuntza eta Enplegua.



Aurkibidea

Sarrera

- 01.* Lehiakortasuna eta Berrikuntza
- 02.* Ekintzailletza eta Jarduera Berria
- 03.* Formakuntza eta Enplegua
- 04.* Turismoa
- 05.* Behatokia, Europako Lankidetzeta eta Patzuergoa
- 06.* Proiektuak
- 07.* Bidasoa bizirik kopurutan / 2022
- 08.* Urtekari Sozioekonomikoa / 2022

Esker onak



Sarrera

2022an ere, Bidasoa bizirik-en jardunaren ardatz nagusiak lankidetzaz eta berrikuntza izan dira, ekitaldiko politikak eta jarduerak diseinatu eta ezartzeari dagokionez. Jarduera horiek Irungo Udalak eta Hondarribiko Udalak eginiko enkargu eta kudeaketa-planen ondorioa izan dira.

2022ko ekitaldi hau hausnarketarako eta egokitzapenerako urtea izan da, sozietateko kudeaketa-tresnak eta programak 2030 Agendaren GJHen eskakizunekin lerrokatzeko. Analisi horri esker, balantze bat egin dugu Bidasoa bizirik-ek 2030 Agendari egiten dion ekarpenaz, eta bideo-orri propio bat trazatu dugu garapen jasangarriko helburuak gure jardueretan txertatzeko eta gure jarduera horiekin lerrokatzeko.

COVID-19aren krisiak eragindako kalteak konpontzera bideratutako funtsak bideratzeko gobernuaren estrategia osatzen du Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planak, eta 2022an bertan jasotako proiektuak exekutatzeari ekin zaio, erreforma eta inbertsioen bidez. Ildo horretan, nabarmentzekoa da sozietateak funtsezko rola izan duela proiektuen koordinatzaile eta sustatzaile lanetan. Eskualdeko udalek eta sozietate publikoek

(tartean, Bidasoa bizirik bera) aurkeztu dituzte proiektu horiek, ateratzen joan diren ekimen eta deialdietan. Proiektuen aurkezpenean, aurrea hartuz eta modu proaktiboan jokatu du, finantzaketa lortzeko benetako aukerak zituzten proiektu estrategikoak identifikatuta eta lehenetsita, kontuan izanik deialdietan eskatutako baldintza zorrotzak bete behar direla (betekizun administratiboak, epeak...).

Horrela, Irungo Udalaren partetik deialdien jarraipena eta analisia egin da, asteroko bilerak egin dira, jarraipen-taula eguneratu da eta funtsak kudeatzeko prestakuntza-saioetan parte hartu da.

Kanpo politikaren ondoriozko ziurtasunik gabeko egoera honetan, enpresen laguntzan eta enpleguan eskudun diren erakundeek ekimen eta deialdietan proaktibo izaten jarraitu dugu eta, bitartekari gisa, politika horiek gure lurraldera erakartzen eta egokitzen saiatu gara. Horrez gainera, funtsezko rola izan dugu gure enpresen, ekintzaileen eta enplegu bila dabilzanen behar zehatzak erakunde horiei helarazten, haien programak hautemandako egoera errealearen arabera egokitu ditzaten eta egoera hori kontuan har dezaten beren programa eta ekintzetan.

2022an, Berdintasun Planaren esparruan, aipatzekoa da Emakundek berdintasunaren arloko erakunde gisa homologatu gaituela. Kudeaketa eta gardentasuna hobetzen jarraitu dugu, prozedura guztiak Sektore Publikoko Kontratuen Lege berriaren prozeduren arabera egokituta.

Aurten, Krea Bidasoa azoka aurrez aurre egin da osorik, eta ezarritako helburuak bete ditu. 300 pertsonak baino gehiagok parte hartu zuten, hainbat erakundetakoak (enpresak, ekintzaileak, organismo publikoak eta pribatuak, unibertsitateak eta eskualdeko prestakuntza-zentroak).

Edizio honetako berritasuna «Artea ekoizpenean» erakusketa izan da. Bertan industrian eta ekoizpenean erabiltzen den hizkera artearen lengoaiara, sorkuntza-prozesura eta diskurtso kuratorialera eramateko ahalegina egin da.

Enpleguaren bi asteak ere programatu dira, aurrez aurreko formatuan. 39 enpresak hartu zuten parte aurreneko edizioan, eta 37k bigarrenean. 702 lanpostu eskaini dituzten 242 lan-eskaintzaren bidez.

Emaitzak jakinarazi dizkiguten 43 enpresek diotenez, 83 kontratazio egin dituzten parte-hartzaileen artean.

Enpleguaren alorrean, lanarekin lotutako erakunde eta entitateekiko kolaborazioa indartu dugu, bai eta enpresa-ehunarekin dugun harremana ere, funtsezkoa baita Bidasoaldeko herritarren enplegagarritasuna hobetzen jarraitzeko. Ildo horretan, aipagarria da iaz abiarazitako laneratzeko baliabideen sarea, kolektibo zaurgarriak laneratzeko proiektu bat abiarazi baitu eskualdeko hirugarren sektoreko erakundeekin elkarlanean, GFaren Elkar-Ekin proiektuaren bidez.

Berrikuntza eta enpresen lankidetzaren sustatzea da sozietatearen jardueraren beste zutarrietako bat, eskualdeko enpresen lehiakortasuna hobetzeko helburuz. VIAIRUN hiri-barruti berritzailea proiektu estrategikoaren barruan,

KOLAB Vialrun 2021sorkuntza bateratuko eta lankidetzako espazioa antolatu zen enpresa-ehunarentzat, negozio-aukera berriak eta proiektuetarako ideiak identifikatzeko zenbait sektoretako joeren ildo beretik (e-mobility, garraio eta logistika aurreratua eta retail 4.0). Esparru horretan, bost proiektu pilotu abiarazi dira 2022an, lan-ildo horietan jarraitzearen bideragarritasuna aztertzeko.

Gainera, industria-enpresetan 4.0 industria deritzanaren teknologiak txertatzeko lanak sustatzen jarraitu dugu, Gipuzkoako Foru Aldundiaren enpresen eraldaketa digitalerako garapeneko programaren arabera. Horrez gainera, enpresei laguntza eskaini diegu berrikuntza-prozesuetan, Hazinnova «Berrikuntzarako sarbidea» programaren bidez. SPRik eta Innobasquek sustatutako programa da hori, eta bertan parte hartzen dugu eskualdeko Hazinnova agente gisa. Ekonomia zirkularraren lan-ildoari dagokionez, proiektu pilotu bat gauzatu dugu bi enpresarekin, karbono-aztarna neurtzeko eta hura murrizteko plan bat idazteko.

Bidasoko Hiri Behategia oinarritzko tresna da oraindik ere gure analisi sozioekonomikoa egiteko, eta informazio-iturri baliagarria da Irun eta Hondarribirako, are gehiago aurten, lagungarri izan baitzaigu ehunaren egoera ezagutzeko.

Ekitaldi honetan agentziaren funtsezko ardatz bat sustatzen jarraitu dugu, ekintzailetza, hain zuzen ere. Enpresa berrien beharretatik oso gertu egon gara, enpresa berriak zentzurik zabalenean hartuta. Azken batean, beren beharrak zeintzuk diren entzun dugu eta, gure baliabideen arabera, erantzuna eman diegu, dela neurri zehatzak ezarrita, dela erakunde edo instituzio eskudunei horien berri emanda. Neurri zehatzen artean, aipatzekoa da ekintzaileentzako beken programa sendotu dela. Ekitaldiko beste ekimen garrantzitsuetako bat izan da ekintzaileei laguntza emateko programa bateratuaren diseinua, Bic Gipuzkoarekin batera egindakoa.

Turismoaren alorrean, harreman estuan egon gara sektore horrekin, haien beharren berri izateko. Interneten dugun posizionamendua

indartzen jarraitu dugu, Visit Hondarribia Irun plataformaren bidez. Bertan, sare sozialetarako estekak daude, bi udalerrietako turismo-baliabideak era berritzailean sustatzen jarraitzeko. Ekintza aipagarriari dagokienez, MICE gida editatu da.

Sozietateak, Irungo eta Hondarribiko udalekin eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen eta Obra Hidraulikoen Departamentuarekin batera, eskualdean jasangarritasun energetikoaren alorreko planifikazioa eta ekintzak sustatzeko lanei ekin die; Bidasoaldeko Energia Planean jasoko dira. Plan horren helburuak bat datoz Europar Batasunean, Espainian eta EAEn ezarritako helburuekin, energia aurreztearen, eraginkortasunaren eta energia berriztagarrien arloan. Helburu horien xedea da trantsizio energetikoko prozesu bat sustatzea eta aktibatzea, eskualdean giltzarri diren sektoreetan jarduketak ezarrita.

2022ko gure jardueraren ildo nagusia izan da enpleguaren sorkuntzako edo enpresa-ekimen

berrien sorrerako sektore berrietan jarduerak sustatzen eta egiten jarraitzea, eta aurten aipagarria da ekonomia zirkularreko plana garatzen jarraitu dugula.

Sozietateak, gainera, laguntza teknikoa eskaini die Irungo eta Hondarribiko udalei SMARTMOB proiektua ixteko eta NGEU DTI Irun - Oiasso Hiri Erromatarra proiektua abian jartzeko.

Aurten ere, Bidasoa bizirik-ek eskualdeko udalen garapen-planak sustatzen, garatzen eta gauzatzen parte hartu du: Irun Ekintzan, Irungo Udalaren garapen ekonomikoaren eta enpleguaren aldeko ituna; eta Hondarribia Abian, Hondarribiko Udalaren garapen ekonomikoaren eta enpleguaren aldeko akordioa. Gainera, Bidasoa bizirik-ek, berriro ere, Bidasoa-Txingudi mugaz gaindiko partzuergoaren jarduerak koordinatu, sustatu eta gauzatu ditu.



1

Lehiarkotasuna eta Berrikuntza

Aurten, lehiakortasuna hobetzen laguntzeko enpresei eskaintzen diegun zerbitzuaren barruan, bereziki nabarmendu dugu estrategia hausnartu beharra dagoela trantsizio bikoitzeko gaietan (digitala eta ekologikoa) eta belaunaldien arteko erreleboan, epe labur eta ertainean neurriak planifikatu ahal izateko. Era berean, planifikatutako ekintzen inplementazioan enpresei lagun diezaieketen programak jarri ditugu abian; esaterako, Bidasoa digitala, Karbono Aztarnaren Kalkulua edo Hazinnova, eskualde honetan Hazinnova agentearen rola dugu eta.

Vialrun trenbide-eremuan hiria berritzeko proiektuari lotutako Hiri Barruti Berritzailea proiektuaren esparruan, eta KOLAB Vialrun 2021aren ondorioz, e-mobility, garraioa eta logistika aurreratua eta retail 4.0 sektoreetako joeren ildoko negozio-aukera eta proiektu-ideia berriak identifikatzeko enpresa-sarearentzako sortzekidetza- eta lankidetza-espazioa baita, 2022. urtean bost proiektu jarri ziren abian, esperientzia pilotu gisa, lan-ildo horiekin jarraitzea bideragarria ote den aztertzeko.

Enpresen artean lankidetzak sustatzeko eta sareak sortzeko lan-ildoari jarraiki, "Topaketak enpresan" programak hausnarketa-gune bat sortu du eskualdeko 8 industria-enpresaren artean, ekoizpen-plantan bertan ekoizteko jardunbide egokiak eta enpresa-kudeaketa partekatuzko.

Era berean, eta aurreko urteetan bezala, laguntza tekniko eman dugu txikizkako merkataritzaren eta tokiko produktuen sektorearen lehiakortasuna hobetzeko ekintzak abian jartzeko, Hondarribia Abian proiektuaren eta Irungo merkataritza suspertzeko planaren esparruan.

Enpresen lehiakortasuna hobetzen laguntzeko programa

Programaren bidez, aukera berriak eta proiektu berriak atzematen laguntzen diegu enpresei, inguruan sortzen diren aldaketei aurre egin ahal izan diezaieten. Enpresa bisitatu, eta hausnarketa estrategikoa egiten dugu zuzendaritza-taldearekin batera lehenetsi beharreko jarduera-ildoei buruz. Lan-ildoak eta/edo lehentasunezko proiektuak eta horiek finantzatzeko bideak biltzen dituen ekintza-plana prestatzen dugu, eta plan hori aldian-aldian berrikusten dugu enpresarekin.

Aurten, 32 hausnarketa estrategiko berri egin ditugu, eta 25 ekintza-plan eta 25 jarraipen.

Hiri-barruti berritzailea, inklusiboa eta adimenduna e-mobility, garraioa eta logistika aurreratua eta retail 4.0 VIAIRUN sektoreetan

Sektorea espezializatzeko eta ekonomia-jarduera berri bat sortzeko proiektua, 1. fasea.

KOLAB Vialrun.

Lan-ildo horiekin jarraitzea bideragarria ote den aztertzeko, 2022an proiektu hauek jarri dira abian esperientzia pilotu gisa:

- Datuaren monetizazioa.
- Trantsizio ekologikorako deskarbonizazioa.
- Enpresen arteko lankidetzak-plataforma.
- Garraio eta logistikaren sektorea ezaugarritzea.
- Prestakuntza-bideak, erakundeetan datua kudeatzeko.

Bidasoa Digitala: Industria-enpresan eraldaketa digitala egiteko laguntza

2017an ekintza-plan digitala egin zuten enpresetatik, 8 enpresarekin lan egiten dugu plana berrikusten, aurrerapenak aztertzen eta proiektu berriak atzematen.

Beste 7 enpresa sartu dira ekintza digitalaren plana egiteko programan.

Identifikatutako proiektuak 6 enpresarekin garatu ziren, eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren DATEKIN laguntza-deialdira aurkeztu ziren.

Berrikuntza

- Negozio-ereduari buruzko hausnarketa estrategikoa: 5 enpresa.

Talde-saioak banakako aholkularitzarekin konbinatu ditu lan horrek, eta enpresa bakoitzak bere negozioari buruzko hausnarketa egin du 2025. urtera begira, eta ibilbide-orri bat prestatu du lehenetsitako proiektuekin.



- Hazinnova programa, "berrikuntzara ez-teknologikora sartzeko atea".

SPRIrekin eta Innobasquerekin lankidetzan: hamabost enpresatan 22 proiektu identifikatu ziren, eta azkenean, 11 enpresak 18 proiektu berritzaile aktibatu zituzten.

Eskualdeko ETEen arteko lankidetzeta eta sareak sortzea sustatzea

Topaketak enpresan

Programa honen helburua da eskualdeko enpresen arteko topaguneak sortzea, elkar ezagutu dezaten, lankidetzeta susta dadin, informazioa partekatu dezaten eta interes komunekoa gaiei buruzko eztabaida sor dadin, horren bidez etorkizunean garatu beharreko hobekuntza lehiakorreko ekintza berriak atzemateko.



Encuentro en SELLEX S.A.

2 marzo 2022

Ekoizpen-planta daukaten eta 20 langiletik gora dituzten 8 industria-enpresak parte hartu dute.


Topaketaren formatua enpresa anfitrioi baten ekoizpen-instalazioa bisitatzea zen. Bertan, enpresa anfitrioiak jardunbide egoki bat aurkezten zuen. Ondoren, eskualdeko eskaintza enogastronomikoaren barruan dagoen

establezimendu batera bisita egin zen, eztabaida bertan egiteko.

5 topaketa egin dira, eta honako gai hauek landu dira:

- Nazioartekotzea eta diseinua- Makina berriak sartzeta / prozesuak / ekoizteko baliabideak.
- "Industria 4.0" eta digitalizazio teknologiak, eta ekonomia zirkularra eta Ekodiseinua.
- Zibersegurtasuna, I+G+b kudeatzea eta teknologia-zentroekin kolaboratzea.
- Kalitate sistemaren kudeaketa eta langileen prestakuntzarekin duen lotura, dokumentazioa, aseguruak, LAP, etab.

Irungo eta Hondarribiko zerbitzu aurreratuen katalogoa.



Industria-sektoreari zuzendutako zerbitzu aurreratuen katalogoa eguneratzea, eskualdeko 42 enpresaren informazioa jasota. Tresna bat da industria-prozesuak automatizatzeko zerbitzu aurreratuak enpresen eta 4.0 industriako teknologia-enpresen eta beste enpresa batzuen ezaugarriak eta zerbitzuak sustatzeko eta zabaltzeko. Helburu nagusia du enpresen arteko merkataritza-harremanak sustatzea.

Ekonomia zirkularra

Deskarbonizazioari buruzko 2 tailer antolatu dira:

- Lege-joerak, deskarbonizazioari dagokionez.
- Karbono-aztarna: kalkulua eta erregistroa. Proiektu pilotua 2 industria-enpresarekin: karbono-aztarna korporatiboaren kalkulua, 1. eta 2. irismena.

Txikizkako merkataritzaren eta tokiko produktuen sektorearen lehiakortasuna hobetzea. Hondarribia Abianen esparruko ekintzak

Txikizkako merkataritza

Hondarribia erosketari-hiri gisa posizionatzeko estrategiaren eta merkataritzaren ekintza-planaren koordinazioa eta jarraipena.

Merkataritza dinamizatzeko ekintzak

- Inauterietako eta herriko jaietako erakusleho-lehiaketa.
- Txanogorritxuren erakusleho-apainketa, Hondarribiko Udal Liburutegiak bultzatuta. Ibilbide bat sortu zuten parte hartu zuten 11 saltokien artean, Txanogorritxuren ipuina kontatzeko, erakuslehoak girotuz eta apainduz.

- SummerMarket - Udako Merkatua 2022, udako merkatua abuztuaren 13an eta 14an, San Pedro kalean. 18 saltokik parte hartu zuten.
- Eguberrietako azoka. Edizio honetan, luzatu egin zen azokaren iraupena. horrela bada, asteburu batean egin beharrean, abenduaren 16tik 24ra egin zen, eta lekua ere aldatu zen, hiriaren erdialdean egiteko, San Pedro kalean. Han, zurezko 8 etxola jarri ziren, eta 16 dendak eta artisauk jardun zuten.
- Eguberrietako tailerrak. Eguberrietan, artisau-establezimenduak sustatzeko eta, halaber, udalerrian aisialdirako eskaintza handitzeko, tailerrak antolatu ziren helduentzat eta haurrentzat. Guztira, 10 tailer antolatu ziren; gehienak hiriko establezimenduetan bertan.

Prestakuntza-ekintzak

- "Retaileko Euskal Eskola" programa: 6 parte-hartzaile.
- "Eus-Commerce" programa: 6 parte-hartzaile.
- Argazkigintza-tailerra: 12 parte-hartzaile.
- Erakusleho-apainketako tailerra: Prestakuntza horren barruan sartuta zegoen kontsumo txikiko argiztapenari eta teknologia interaktiboari buruzko prestakuntza ere: 11 parte-hartzaile.
- Merkataritza-ekipamendua hobetzeko laguntza-lerroa zabaltzeko laguntza teknikoak: 16 espediente diruz lagunduak.
- Bono Denda ekimena saltokietara zabaltzeko eta haiek sentsibilizatzeko laguntza teknikoak: 51 saltoki atxiki ziren.
- Informazio-zerbitzua: 37 kontsultari erantzun zitzaizkien.



Tokiko produktuaren sektorea

• Bertako Produktuaren VI. Astea.

Gastronomiaren eta tokiko produktuaren arteko lotura sendotzeko, apirilaren 25etik 30era bitartean, Bertako Produktuen Astea egin zen, eta hamar bat gastronomia-tailer antolatu ziren, bai helduentzat bai haurrentzat. Hondarribiko 12 establezimendutan egin ziren jarduerak. Udalerriko hiru ikastetxek ere parte hartu zuten, eta Botika Agroaldea eta Azoka bisitatu ahal izan zituzten, Tren Berdea erabiliz egindako bisita gidatu batean. "Gipuzkoa Azoken Sarea" proiektua: Digitalizazioa, komunikazioaren hobekuntza eta azokaren gobernantza eta ordenantza erronka dituzten lantaldeetan parte hartzea.



Irungo merkataritza biziberritzeko planarentzako laguntza teknikoa

Laguntza teknikoa MARKET PLACE IRUN proiektuan Irun Market plataforma abiarazi zen azaroaren 24an.

Prestakuntza-ekintzak:

- "Retaileko Euskal Eskola" programa: 6 parte-hartzaile.
- "Eus-Commerce" programa: 12 parte-hartzaile.

KREA Bidasoa, Ekintzailtza, Sorkuntza eta Berrikuntzako Topaketa

Apirilaren 7an egin zen Ficoban.

Aurten, formatua berria baita, nabarmentzen dugu "**Fabrikazioaren artea**" erakusketa antolatu dela.

Erakusketako pieza bakoitza ad hoc sortu zen, balioak, esperientziak eta berrikuntza adierazteko. Ahalegina egin zen industriaren eta artearen lengoaiaren fabrikazioaren eremuan, sortze-prozesuan eta diskurtso kuratorialean erabiltzen den lengoaia ulertu eta itzultzeko. Kasu horretan, obrak aurkeztu zituzten artistak Bidasoa eskualdeko industria-entresak izan ziren, Eta haien obra ezagutzeko, Helga Masetani erakusketako komisarioak eman zituen azalpenak.







2

Ekintzailletza eta jarduera berriak

Ekintzailetza eta Jarduera Berrietarako sailaren helburua da ekintzaile kultura inklusiboa garatzeko aukera emango duten enpresa ekimenak sustatzea, enpresak eta enplegua sortzea eta sendotzea, eta, horrenbestez, eskualdean garapen ekonomikoa indartzea eta gizarte balioa sortzea.

Gure jardueraren abiapuntua da pertsona ekintzaileei eta enpresa berriei laguntza eskaintzea, behar unean zerbitzuak eskainiz eta baliagarri gertatuz, dituzten premia eta galdeei modu eraginkor bezain pertsonalizatuan erantzunez. Zerbitzu osoa eskaintzen dugu: arreta eta informazioa negozio bati ekiteko unean, aholkularitza lehen ideia hori balioztatzeko, mentore lana, prestakuntza, enpresa sortzeko behar diren tramiteetarako sarbideak, azpiegituretarako sarbideak enpresaren aurreneko jarduera urteetan, eta ekimena sendotzeko laguntza.

Kultura aldaketa da gure apustua, ekintzailetza sustatuz eta balioetsiz, gazteen artean bereziki, eta pertsona ekintzaileei enpresa proiektua abiarazten lagunduz, prestakuntzarako baliabideetarako sarrera erraztuz eta ekimenen aldeko trebetasunak garatuz, negozioaren ideien sorreran eta garapenean lagunduz eta enpresaren jardunaren bitarteko une nagusietan funtsezko bermeak eskainiz. Egiteko horretan guztian, etengabe berritzen dugu 2030 agendaren inplementaziorako konpromisoa, eta bultzatzen ditugun ekimen guztietan eta bideratzen ditugun lan moduetan saiatzen gara betiere geure zerbitzuak berrikuntzen eta digitalizazioaren eskutik eskaintzen.

Bestalde, bereziki adierazi beharra dago bideratu ditugun lanen artean daudela Irun eta Hondarribiko udalek eginiko enkarguen arabera jarduerak, *Irun ekintzan* edo Irungo garapen ekonomikoa eta enpleguaren aldeko Itunaren esparruan, alde batetik, eta *Hondarribia abian*, Hondarribiko enplegu eta garapen ekonomikorako Planaren esparruan, bestetik.

Halatan, lanean ari gara betiere gure eskualdean ekintzailetzaren eta ekimenaren ekosistema osatzen duten gainerako ekintzaile eta

erakundeen arteko harremanen erreferentziazko tresna eraginkorra izaten segitzeko.

Hona, bada, 2022. urtean bideratu eta burura eramane genituen jarduerak.

Motibaziorako ekintzak

Presente eduki dugu beti geure jardueran ekimenaren aldeko motibazioa, gizarte ekintzailearen garapena sustatzen duen burdinaga den aldetik.

Tech Irun eta Gaztetek tailer teknologikoak antolatu eta garatu genituen ekintzailetzaren eta teknologiaren balioak adin goiztiarretan (8-13 urte) sustraitzeko eta ekintzailetza sortzailearen gaineko jakin-mina pizteko. 2022ko Aste Santu, uda eta Eguberriko eskola-oporraldietan, 14 tailer antolatu genituen guztira, STEAM ikuspegiarekin, eta 200 neska-mutil inguruk esku hartu zuten haietan.



Izpiritu ekintzailea ernatzeko eta ekimenaren aldeko bokazioak bideratzeko garatu genituen ekintzetako bat izan zen Izpiritu Ekintzailea Sustatzeko Programa, LHko Ikastetxeetan bideratua. 486 ikaslek hartu zuten hartan 2022. urte osoan. Programa honen arabera



egitarauan, Pertsona Ekintzailearen Eguna ospatu zen maiatzeko hilean, eta hainbat jarduera bideratu ziren ospakizun hartan kultura ekintzailea sustatzeko, ikasleria motibatuzeko eta ekintzailletza balioesteko

Ekintzailletzaren gizarte balioa balioesteko xede horretan berean, zabalkunderako ekintzak bururatu dira 2022an, ekintzailletzarako 128 buletin eta 10 ohar eta prentsaurrekoren bitartez, eta ugari izan dira, halaber, Bidasoa Bizirikek urtean zehar bideraturiko weberrateak.

Pertsona ekintzaileak eta enpresa berriak

Arreta zerbitzuen jomuga nagusia pertsona ekintzailea dela kontuan harturik, enpresak sortzeko eta ekimen berrien arretarako zerbitzuek informazio eta aholkularitza tekniko eskaintzen dute enpresa arlo guztietan (kudeaketa, fiskalitatea, finantzazioa, marketina, laguntzak, tramiteak, eta abar), bai eta enpresa ekimen berrien gaineko aholkuak ere. Urtean zehar, 1.053 kontsulta hartu dira eta zerbitzua eskaini zaie 602 pertsona ekintzaileri. Enpresa berriak ziren haien arteko 263, eta beharreko laguntza hartu dute, halaber, 80 bideragarritasun plan bideratzeko.

Ekintzaile jarrerak hautematen, gaitzen eta bideratzen laguntzen diguten tresnetako bat da, hain zuzen ere, pertsona ekintzaileei sostengua emateko programa, negozio ideiak aztertzeke prozesuan (APEI) eta enpresa berriak sortzeko eta abiarazteke prozesuan (APEA). Lanbiderekin urtero berritzen dugun hitzarmen baten babespean garatzen ditugu biak. 2022 bukatu zen aurreko urteko ekitaldiari zegokion programa, 21 parte hartzaileekin, eta garatzen hasia da gaurgero aurtengo deialdiari dagokiona, 11 lagunekin.

Enpresa berriak sendotzeko ekintzen artekoa dugu Puntala bizirik, Arretxe-Ugalde, Ficoba eta Zaisako enpresa-guneetan diharduten 17 enpresari, eta coworking aretoan egokituriko beste 5i, eman zaien sostengua. Berrito ere, Eguerdi On Topaketak coaching programaz

indartu dugu laguntza hori. 22 enpresa sortu berrik hartu dute parte hartan aurreko ekitaldian.

Proiektu/enpresaren finantzazio bideetarako sarrera errazteke laguntzen eremuan, 20 negozio planek jaso dute gure sostengua finantza erakundeen maileguak lortzeko prozesuan, 72k udalen laguntzak lortzeko prozesuan (63k Irunen eta 9k Hondarribian), 32k SEPEk kapitalizazioari begira ematen dituen laguntzen kasuan, 89k Lanbidek enpresen finkamendu eta sendotzeari



begira ematen dituen laguntzen kasuan, eta beste 40k Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak ekintzailletza bultzatzeko lerroetan aintzat harturiko laguntzak lortzeko prozesuan.

Jarduera berriak erakartzeko xedean, zoru erabilgarriaren eta jarduera ekonomikorako guneen eta haien ikusgarritasunaren gaineko informazioa hobetzen ahalegindu gara betiere, eta, informazioa aztertu eta eguneratu ondoan, eduki horren berri eman dugu hondarribia.eus webgunearen atal berri batean eta beharreko lekua egin diogu Bidasoa Biziriken web orrian ere, Iruni dagozkion datuak eguneraturik aurkeztu ahal izateko. Urtean zehar, segida eman zaio etengabe eguneratze lan honi, datu berriak bildu ahalean eskainiz.



Ekintzailletza berritzailea eta digitalizazioa

Lehentasuna da, zalantzarik gabe, bai eta gure eskualdean ere, indar berritzailez datozkigun enpresa ekimenak bereziki lagundu beharrekin bat egitea. Halatan, 2022an egikaritu dugu, behar bezala ekipatuz, BIDASOA GUNEA, ekintzailletza berritzaileko gune berrirako proiektua. Proiektu honen arabera bereziki lortu nahi da indar berritzailea dakarten enpresa ekimenek jardueran hasi ahal izateko premiazko dituzten azpiegiturez eta espazioaz ongi horniturik egotea, talde eta banan-banako lana erraztu eta ahalbideratuko duen esparrua edukitzea, eta esparru horrek bere baitan molde guztietako enpresak eta ekintzaileak jaso ahal izatea, bertaraturiko kideen elkarlana eta harremana errazagoa izan dadin.

Urteko azken hiruhilekoan, Kudeaketa Plan bat landu dugu, pilotu izaeraz, BIC Gipuzkoarekin batean, 2023an jardunean has dadin. Hartara bilduko dira indar berritzailea duten ideien zabalkunde, sentsibilizazio eta hautemate ekintzak, eta haren bitartez jasoko dituzte proiektu berritzaileek beharreko aholkularitza baliabideak eta laguntza ekonomikoak.

Jarduera ekintzaile berritzaileak eta jasangarriak bultzatzen segitzeko lehentasunaren eskutik betiere, 4 hautagaitza sostengatu ditugu Irun ekintzan Sarien Ideia Berritzaileen mailan (Arte Sorkuntza 3Dko animazioaz; Web Plataforma soziala, jarduera fisikoa eta kirola osasunaren eta ongizatearen aldeko dinamikan bizkortzeko; Moda jasangarria, eta Softwarearen garapena, Biga Dataz eta AAz). Gainera, "Bidasoaldean ekiteko Bekak" programaren bi deialdi egin dira urtean zehar, eta aurre-ekimen fasean dauden lau proiektu berritzailea gertatu dira laguntza horien onuradun (Twitch bideo-joko ataria, Turismo aktiboa: kirolak naturan, Dronen eskola, eta Heziketa berritzaileko aholkularitza). Urrian eta azaroan bideraturiko hiru tailer berezi izan dituzte proiektu horiek euskarri.

Prestakuntzarako baliabideen artetik, digitalizazioa izan da antolaturiko jarduera askotako protagonista. Helburu nagusia izan da

enpresa ekimenak beharreko ezaupidez hornitzea eta jardunean premiazko dituzten tresna digitalak ezagutaraztea. 86 pertsonak hartu dute parte "Ekin asteazkenetan", ekintzailletza berritzaile eta digitalizazio batez ere praktikorako programaren arabera bideratu diren 11 tailerretan.

Enpresa sortu berrien digitalizazioan eta, bide batez, zibersegurtasunean, egitekoen automatizazioan eta online salmenten arloan aurrera egiteko, baliabide saihestezina izan dira SPRIrekin batean antolatu ditugun aholkularitza saioak, Inplantalariak. Urtean zehar, 10 talde-saio eta 37 banako saio egin ditugu guztira, eta 104 pertsonak hartu dute parte haietan guztietan.

Ekintzailletza jasangarria

Digitalizazioarekin batean, jasangarritasuna izan da, hain zuzen ere, ekonomia zirkularrarekin eta Garapen Jasangarriko Helburuekin loturiko jarduera aukerak identifikatzeko landu ditugun interes-fokuetako bat, eta gaugerero eskura geneuzkan tresnak ere aztertu ditugu, trantsizioan lagungarri gerta dakizkigukeelakoan, eta zeharkako izaeraz egin diegu sarrera gure zerbitzuetan halakotzat hartu ditugunei.

Halatan, jardunean hasi gara jarrera zirkularrak sentsibilizazio eta prestakuntzarako jarduerekin batean bultzatuz, eta bideratu ere egin ditugu

Ekintzailletza sortzailea eta Ekiteko gaitasuna

Ekintzailletza sormenaren eta kulturaren eremuan indartzeko, bi networking topaketa izan dira maiatzean eta azaroan, gu ere partaide garen Garapen Agentzien Euskal Elkarteko Kultura eta Sormen Industrietarako lan-taldeak antolatuak. Topaketa hauen helburuak izan dira arlo honekin loturiko ekimenak balioan ezartzea eta lurraldeetan parte hartu duten proiektuen arteko elkarlana bultzatzea.



Apirilaren 7an egin zen KREA BIDASOA izeneko topaketa, eta topagune berritzailea izan zen berriro ere. 300 partaidek esku hartu zuten guztira ekimen, berritasun eta sormenaren jardunaldi honetan, eta, LHko ikasleekin batean, eskualdeko ehun pertsona ekintzaile eta enpresa inguru bildu ziren hartara. Hainbat proposamen egin ziren etengabe aldatzen ari den enpresa

eszenategira egokitu ahal izateko ezinbestekotzat joak diren funtsezko jardunbideen aurrean.

Topaketa bukatzeko, berriro ere antolatu zen Fist Pitch aurkezpen saio berezia, eskualdeko sei ekimen-proiektu berri modu sortzailean ezagutarazteko.





3

Formakuntza eta enplegua

Prestakuntzako eta Enpleguko departamentuaren jarduerak hiru ardatz estrategiko izan dituzte: enplegu-ekintzetan, prestakuntzan eta orientazioan laguntzen duten entitate eta erakundeekiko tokiko sareak indartzea; erabaki pertsonalak eta profesionalak hartzeko prozesuetan pertsonen posizionamendua hobetzen laguntzen duten ekintza berritzaileak sustatzea eta pertsonak

aholkatzea, orientatzea, babestea eta laguntzea gizarteratze- eta laneratze-prozesuetan.

Bidasoa bizirik enplegu-sistema publikoaren barruan dago, eta LANBIDE Euskal Enplegu Zerbitzuaren zentro laguntzailea da, Horregatik, egiten ditugun jarduera guztietan, pertsona guztiei enplegua lortzen laguntzeko lan egiten dugu, hartara, lan-merkatu ekitatiboagoa lortzeko.

2022an nabarmendu behar da bi proiektu berritzaile jarri direla abian. Berritzaileak dira, metodologiagatik eta/edo diseinu kolaboratiboagatik.

- IMB eta/edo DSBE jasotzen duten iraupen luzeko langabeak gizarteratzeko eta laneratzeko laguntza integraleko ibilbideen tokiko proiektu pilotu bat, IRUN EMPLEO SILVER ECONOMY izenekoa, inguruko beharrei erantzuten diena. Zaintza-lanen profesionalak gaitzeko diseinatu da; zehazki, instituzioetan mendetasun egoeran dauden pertsonen arreta soziosanitarioa emateko teknikariak gaitzeko. Proiektuak 664 orduko prestakuntza ofizial ziurtatuko prestakuntza-ibilbidea du, eta 10 hilabeteko txandakako kontratazio-fase bat, eskualdeko enpresetan. Proiektuan 13 pertsonak parte hartzen dute; % 69,2, emakumeak, eta % 30,8, gizonak Sei enpresak parte hartzen dute.
- Eta enplegu- eta prestakuntza-gaietan erreferentzia diren entitateen eskualdeko saretik diseinatutako lankidetzaren proiektu bat. Proiektu horrek BidaLAN izena du, eta Gipuzkoako Foru Aldundiak finantzatzen du, "Enplegua eta gizarteratzea eta laneratzea sustatzeko, Elkar-EKIN Lanean" programaren bidez. Proiektu horri esker, maila anitzeko gobernantza-eredua indartu dugu, irekia eta kolaboratiboa, eta eskualdean garatzen ari gara. Proiektuak aukera eman du lan-arloan talderik ahulenak hobeto posizionatu daitezela. Beste entitate pribatu batzuekin batera egiten den proiektu integral bat da, lanerako aktibazioa, prestakuntza eta bitartekotza gauzatzeko.

Etorkizuna duten Lanbideen "El Espazio"

2022. urtean, etorkizuna duten Lanbideen El Espazioan, 3.699 laguntza-zerbitzu garatu dira lan- eta prestakuntza-ibilbideetan dauden pertsonen laguntzeko.

Esku-hartze pertsonalizatuak eta taldekako jarduerak egin ditugu, pertsonen arreta emateko intereseko eremuak edo guneak erreferentziatzen hartuta: "Bilatu zure

prestakuntza", "Aurkitu zure enplegua" eta "Orientatu zure etorkizuna". Aholkularitza pertsonalizatuari dagokionez, orientazio-, informazio- eta laguntza-zerbitzuak eman dizkiegu 257 pertsonari.

Taldeko jarduerari dagokionez, 27 tailer eman ditugu, eta 155 pertsonak parte hartu dute: % 55, emakumeak, eta % 45, gizonak. Tailerren edukiek zerikusia dute enplegua bilatzearekin, informatikarekin eta lankidetzaren tailerrek. Izan ere, El Espazioaren ildo bereizgarrietako bat da, eta, horren bidez, erkidegoko entitate eta gizarte-eragileekin lan egiten dugu, eta haiekin lankidetzan aritzen gara.

Asko erabiltzen den baliabidea Autoerabilera eremua da. Eremu horretan, 9 ordenagailu, Interneteko konexioa, eskanerra, inprimagailua eta lana eskuratu eta hobetzeko hainbat laguntza-baliabide daude. 994 zerbitzu eta 1.572 erabilera-ordu erregistratu dira bertan, eta pandemia baino lehen kontabilizatutako orduak berreskuratu dira.

Orientazioa eta Enplegu Zentroa

Bi zerbitzuak Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuaren bidez finantzatzen dira, eta deialdi publikoen bidez esleitzen dira. Alde horretatik, 2022a indarberritze- eta egonkortasun-urtea izan da bi programei dagokionez, batez ere normaltasuna berreskuratu delako eta deialdiei dagokionez trantsiziorik izan ez dugulako.

Enplegurako Orientazio Zerbitzuan, banakako prozesuak garatu ditugu 612 pertsonarekin; 2021ean baino % 33 gehiago. Laneratzeko portzentajea % 34koa izan da urtearen amaieran. Soilik aurrez hitzordua eskatuta eman diegu arreta pertsonen.

Enplegu Zentroaren zerbitzuak Orientazio zerbitzuaren dinamika bera izan du: 141 erabiltzaile, 2021ean baino % 57 gehiago; 912 arreta, % 227 gehiago, eta 1.437 erabilera-ordu, % 247 gehiago. Arretei eta erabilera-orduei dagokionez, alde handia dago, eta horren arrazoia izan da, batez ere, 2021ean Enplegu Zentroaren zerbitzuak 8 hilabete besterik ez



zuela iraun deialdi arteko aldi baliogabeetan; hala ere, asko berreskuratu da.

Oro har, El Espazioren bidez edo Lanbideko Orientazio-zerbitzuaren bidez banakako ibilbideetan parte hartu duten pertsonen % 50 gizonak izan dira, eta % 50, emakumeak. Adinari dagokionez, % 47, 45 urtetik gorakoak; % 32, 30 eta 45 urte bitartekoak, eta % 21, 30 urtetik beherakoak.

Prestakuntza

Oro har, 2022. urtean, 37 prestakuntza-ekintza jarri dira abian, eta 322 lagun matrikulatu ditugu; % 58,4, emakumeak, eta % 41,6, gizonezkoak.



Enplegurako Prestakuntzan, 21 ikastaro jarri dira martxan. Guztira 1.059 orduko prestakuntza presentziala eta 190 ordu ez presentzialak, eta 229 pertsona kualifikatu dira; % 47,6, gizonezkoak, eta % 52,4, emakumeak. Honako prestakuntza-espezialitate hauek garatu dira: Laguntza soziosanitarioa gizarte-erakundeetako mendekoei, Oinarrizko bizitoki-zerbitzuak, Sukaldaritza, jatetxeko eta Tabernako oinarrizko eragiketak, Frantsesa, Eskorga Jasotzaileak, Laneko arriskuen prebentzioa eraikuntzan, IT txartelak prestatzea, Kargak manipulatzeko eta Bizikletak elektrifikatzea.

Prestakuntza horiek LANBIDEren, Gipuzkoako Foru Aldundiaaren eta Irun Ekintzanen baliabideen bidez finantzatu dira.

Etengabeko Ikaskuntzaren esparruan, informatikako 5 online ikastaro kudeatu eta tutorizatu ditugu; guztira, 118 orduko prestakuntza ez presentziala. 25 lagunek parte hartu dute; haietatik % 80, emakumeak, eta % 20, gizonezkoak.

Halaber, on line prestakuntzako aulaneT – Bidasoa activa plataformak autoprestakuntzako 11 ikastaroetarako sarbidea eskaini du (hizkuntzak, ofimatika eta lanbideak), eta 68 matrikula erregistratu dira; % 70, emakumeak, eta % 30, gizonezkoak.

Lan-bitartekotza eta praktikak

2022. urtean, Euskal Enplegu Zerbitzuak baimendutako Enplegu Agentzia gisa, 120 lan-eskaintza kudeatu ditugu guztira, 208 lanpostu eskaria jasota, eta 2.834 hautagaitza aztertu ditugu enpresentzako. Modu positiboan itxi da eskaintzen % 48,3, eta 72 kontratazio egin dira.

Azpimarratzekoa da, halaber, Enpleguaren Astearen antolaketa, bi ekitaldi berri antolatu baitira: XXVII. edizioa, ekainean, eta XXVIII. edizioa, azaroan. Lehenengo edizioan, 39 enpresak parte hartu dute; bigarreanean, berriz, 37k, eta 702 lanpostu eskatu dituzte, 242 lan-eskaintzaren bidez. Parte-hartzearen emaitzen berri eman diguten enpresek (guztira 43) jakinarazi digute 83 kontratazio egin dizkietela pertsona parte-hartzaileei.



Irungo eta Hondarribiko udaletako enplegua sustatzeko programaren kudeaketa ere garatu dugu, eta 39 hautaketa-prozesu egin ditugu. Horien bidez, bi herrietako 65 pertsona kontratatu dira; % 57, gizonezkoak, eta % 43, emakumezkoak.

Lanekoak ez diren prestakuntza-praktikei dagokienez, 29 hitzarmen kudeatu dira eskualdeko enpresekin, eta 10 gizonak (% 34,5) eta 19 emakumeak (% 65,5) parte hartu eta amaitu dituzte garatu diren prestakuntza-programak.





4

Turismoa

2022. urtean bereziki aipatu beharra dago turismo jasangarrirako planetan aintzat harturiko proiektu bat abiarazi izana, THA edo Turismo Helmuga Adimendunen balizko zerrendan baitaude dagoeneko Irun eta Hondarribia. Basquetour-ekin THA gidaliburuak eskualdeetan egokitzeko eginiko lanak bezala, gure eskualdea turismo lehia horretan leku hobean ezartzen lagunduko du, inolaz ere, delako ziurtagiria, eta Europako Next Generation funtsak, eskuratzeko

hasia den lanak. Turismo Adimendurako Plan Zuzentzailea eta Marketin Plana dira lantzen ari diren jarduera nagusiak.

Aldi berean, 2020-2025 bitarteko turismoaren dinamizazioarako planaren garapenari begira, jarduera lerro berriak ere hartu dira aintzat, hala nola MICE turismoa (Biltzarrak eta Konbentzioak), Natura, Familia, ...

Erakunde publiko eta pribatuen arteko jarduerak. Produktuen garapena

- Arloko enpresei sektoreko laguntzen gainean emaniko informazioa eta aholkularitza, eta haien jardueren jarraipena.
- Arloko azpisailletako mahaien eta Produktuaren Klubaren antolakuntza eta koordinazioa.
- Ibai eta Itsasertzeko Bidaien proiektua (IIB SAREA). Proiektu honen arabera, 10 autonomia erkidegotako 16 erakunde bildu dira Espainiako Turismo Bizipenen programaren laguntzetara.
- Irungo Udalarekin batean, Industria Turismo Ibilbidea, Burdinaren Ibilbidea eta Irun Berdea ekimenak bultzatu ditugu, bai eta haietan parte hartu ere, haien sustapenerako euskarriak prestatuz.
- Hondarribiko Udalarekin batean, Erdi Aroko Hirien Sarea bultzatu dugu, hartan parte hartuz.
- Nautika arloko Komunikazio Plana abiarazi dugu Hondarribia Abian programaren bitartez. Itsasoratu izeneko jardunaldia bururatu dugu Kirol Kaian, arlo horretako enpresak dinamizatzeko. Nautika jardueren gaineko informazio standa prestatu dugu xede horri begira.

Turismo lehiakortasunerako jarduerak

- Kode Etikoa kalitate programa, Eskualdeko 17 establezimenduren eta Bidasoa Bizirik turismo departamentuaren partaidetzaz. 2022. Urtean bi enpresa gehiago atxiki zaizkio Kode Etikoari: Feel Basque Country eta Kayak Basque Country.
- ISO kalitate egiaztagiria.
- THA giden aintzatespena egiaztagiriei begira.

- Laguntza eta subentzioen gaineko zerbitzua: 150 Ostalaritza enpresa eta 5 ekintza. Eusko Jaurilaritza, Gipuzkoako Foru Aldundi eta Irun eta Hondarribiko Udalen laguntzak helarazi zaizkio Lojamendu eta nautika zerbitzuetako sektoreari: 50 enpresa eta 5 ekintza.

Informazio, garapen eta sustapen jarduerak

Gastronomia

Jarduera plan bat landu da 2022an produktu enogastronomikoari begira, Basquetour-ekin eginiko lanaren ildotik. 48 establezimenduk hartu dute parte: 25ek Hondarribian eta 23k Irunen.

Hondarribiko Erdi Aroko Pintxoaren eskaintzaren dinamizazio gastronomikoa bideratu dugu, Erdi Aroko Feriaren garaian, eta Hondarribiko 6 establezimenduk esku hartu dute hartan. Dies Oiassonis Jaialdian, Pintxo Erromatarraren Bidea dinamizatu dugu eta 22 establezimenduk esku hartu dute hartan.

Bertako produktuen astea Hondarribian.

On line bideratu dugu ekitaldia eta 9 parte hartzailek jardun dute tailer gastronomikoetan.

Bizipen enogastronomikoak.

Bizipen kopurua: 15.

Euskadi bizipenak.

9 bizipen turismo jardueretan.

Familia turismoa

Une honetan Irun eta Hondarribiko 14 establezimendu ari dira parte hartzen eta Familia Turismorako zigilua edo egiaztagiria eskuratu dute.





Uretako turismoa

Hondarribia Abian ekimenaren arabera, nautika sektorean bideraturiko dinamizazio planari jarraiki, komunikazio plan bat, sare sozialetan kanpaina bat eta Itsasoratu izeneko jardunaldia gauzatu dira 2022an. 17 parte hartzaile izan dira: 16 Hondarribian eta 1 Irunen. Udako jardueren gaineko informazio-orri bat prestatu da turismo bulegoetan banatzeko, eta bideoak eta panelak eguneratu dira.

Feriak eta promozioak

6 feriatan hartu dugu parte: Fitur, Navartur, Bioterra, Expovacaciones Bilbo, Intur Valladolid eta Beveggie Ficoba.

Komunikazioa

Urteko komunikazio planari jarraiki, bereziki landu dugu aurreko urteko sare sozialen bidezko promozioa. Promozioa hedabideetan, hala nola Sud Ouest egunkarian, Ipar Euskal Herriko merkaturan eragiteko, bai eta Interneten ere, Gipuzkoa Kosta

eta Guide du Pays Basque-ren turismo helmugekin batean. Eskualdearen gaineko bi erreportaje egin dira Tusdestinos.net helbidean, sare sozialetan. Iragarki bat jarri da Donostiako Bisitarien Gidan.

Turismo informaziorako euskarriak

2022an Irun eta Hondarribiko Turismo lojamenduen gida eguneratu eta editatu dugu, bai eta MICE gida digitala ere.

Irun eta Hondarribiko 60.000 plano berrargitaratu ditugu.

Lan egin dugu, halaber, Gipuzkoako Turismo Gida eta Petit Futé gida eguneratzeko.

www.bidasoaturismo.com. Webgunea. Lanean segitzen dugu webgunean, eduki arinak eta praktikoak bideratuz. 47.126 kontsulta izan ditugu guztira.

Bisitari eta turisten arreta.

Bereziki aipatu beharra dago Aste Santuko datuak oso onak izan direla, pandemia aurreko datuen pareko. Udaberrian, biziki emendatu da turismo bulegoetara hurbildu diren bisitarien kopurua eta pixkana-pixkana ari gara bisitari frantsesa eta beste nazioetako berreskuratzen. Udako kontsultek beren horretan iraun dute Irungo eta Hondarribiko Portuko turismo bulegoetan.

Heldu den urteari begira, bereziki landuko ditugu hobetu beharreko aspektu batzuk, hala nola seinaleak. Aurtengoan hobetu egin da Irungo turismo bulegorako sarrera, ate automatiko batez, eta erosoagoa du, horrenbestez, sarbidea. THA proiektuaren bidez, bulegoak modernizatu eta euskarri berriak paratuko ditugu, edukiak digitalizatzeko eta arreta hobetzeko.

Biniloak paratu dira bulegoetan, herrietako turismo planoak ikusgai.



Hoteletako okupazio mailaren **jarraipena eta hileroko azterketa**. Aurten, pandemia aurrekoekin parekatu behar izan dira datuak. Kontuan hartzen badugu aurtengoan batez besteko okupazioa % 74,87koa izan dela, datuak 2019koak baino altuxeagoak izan direla esan dezakegu ezberrik gabe.

Parte hartu dugu Gipuzkoa Kosta, Euskal Kosta Euskadi eta Destinos Euskadi marketan.

Itourbask, Turismo Bulegoen euskal sarearen presentzia urtean zabalik diren bi bulegoetan eta Hondarribiko Portuko aldizkako informazio-gunean.

Sareak

- Proiektu amankomunak bultzatuko dira Hendaiarekin, Mugaz Gaineko Partzuergoaren bidez.
- Idazkaritza teknikoak gure gain hartu eta, horrenbestez, Erdi Aroko Hirien Sarea bultzatu eta koordinatu.
- Laguntza teknikoak Erdi Aroko Hiri eta Hiribilduen Sareari.

Sustapen jarduerak.

- "Sare klabeak" musika proiektua, Erdi Aroko Hiri eta Hiribilduen Sarean.
- Komunikazio kanpainak sareetan eta dinamizazioa web, Facebook eta Instagramen.
- Argazki Lehiaketa Instagramen. FotoRed,
- Pintxo eta tapen Nazioarteko Lehiaketa Marvaon.
- Natura turismoko produktuak bi sailetan; natura guneak eta mendiko ibilbideak.
- Atlantikoko Hiri Erromatarren Sarearen sustapena, Idazkaritza teknikoaren bitartez. Turismo departamentuaren esku dago

idazkaritza teknikoak eta bigarren seihilekoan ahalegindu gara sarea bultzatzen eta sarea izaera juridikoz hornituko duten estatutu batzuk lantzen.

- Destinos Euskadi elkarteak. 2023an, elkartearen lehendakaritza izango dugu Irunek eta Hondarribiak.
- Itsasertz eta Ibai Bidaien Proiektua (IIB SAREA), Experiencias turísticas España programak finantzatuak. 10 autonomia erkidegotako 16 erakundek parte hartzen dute hartan, produktu klub izaerako elkarte estrategikoa osatuz. Haien helburua da itsasertz eta ibai bidaien arloan lehen erreferentzia bihurtzea, Getxo eta Basquetour-ekin batean, bazkide kolaboratzaile gisa ari da Bidasoa Bizirik sare horretan.
- Partaidetza Europa proiektuetan, Bidasoa Bizirik beste departamentu batzuekin.

informazio zerbitzua

Bi informazio-gune ditu Bidasoaldeko bulegoak, Irunen bata eta Hondarribian bestea.

Turismo bulegoetan

izan diren bisitariak: **60.338**

-

Turismo bulegoetan kanpotik egin diren kontsultak: **273**

-

Facebook bideko zaleak: **14.409**

-

Bisitariak guztira

www.bidasoaturismo.com: **47.12**





5

Behatokia Europarekiko lankidetzaz/Patzuergoa

2022an 2020-2021 aldian birformulaturiko jarduerak sendotzen eta finkatzen ahalegindu gara, eta desafio berriei ere ekin diegu aldi berean.

Proiektu garrantzitsuak abiarazi ditugu SUSPERTZE, ERALDATZE ETA ERRESILIENTZIA PLANARI jarraiki. Jakina den bezala EUROPAKO BATASUNAREN NEXT GENERATION EU programaren bitartez finantzatu da Plan hori eta "(THA) Turismo Helmuga Adimenduna" eta "Irun jasagarria, irisgarria eta digitala hiri barreneko garraioaren eraldaketa digital eta jasangarrirako" proiektuak bultzatu dira horrenbestez. Abiarazi

dugun prozesu horretako lan lerroetan, sarrera egin diegu funtsezko kontzeptu batzuei, hala nola trantsizio berdea eta jasagarria, energia eraginkortasuna, trantsizio digitala, berrikuntza inklusiboa eta Garapen Jasangarrirako Helburuak, 2030 Agendaren arabekoak.

Lan lerro horiek guztiak mugaz gaineko lankidetzarako itunaren ikuspegitik bultzatzen eta osatzen dira, Bidasoa Txingudi Mugaz Gaineko Partzuergoaren bidez, honako arlo hauetan: turismoa, kultura, kirola, mugikortasuna, gizarte eta parte hartze arloa eta lurralde batasuna

Tresna berriak aintzat hartu eta formula berriak ikertu gure jardunaren eta, Europako programaren esparruan, etorkizunerako abiarazi ditugun proiektu berrien irismena hobetzeko.

Era berean, Bidasoako Behatokitik zabaltzen dira, hileroko txostenen bitartez, lan merkatuaren egoera zertan den une oroz jakiteko baliatu beharreko funtsezko datuak, informazio eguneratuena eta osoena eskaintzeko.

Bidasoaldeko Hiri Behatokia

<https://observatorio.bidasoa-activa.com/es/>

Bidasoaldeko Hiri Behatokiak segida eman dio Irun eta Hondarribia udalerrietako adierazle esanguratsuenen eguneratze lanari.

Hilero bezala, funtsezko 500 adierazleak berrikusi eta zertan diren adierazteaz gainera, aurten bertako eta kanpoko iturrietatik bilduriko 60 albistetik gora ezagutarazi ditu Behatokiak, eta eman ere egin du 9 gai-arloekin loturiko dokumentu interesgarrien berri. 30 informazio eskaera baino gehiagori erantzun zaie, eta hilero eskualdeko bilakaera sozioekonomikoa zertan den argitzen duten informazio-buletinak (72) eta kontratazioen gaineko txostenak (12) igorri eta helarazi dira.



Bidasoa Behereko biztanleriaren hileroko eboluzioa, udalerraren arabera, Evolución mensual de la población desempleada del Bajo Bidasoa según municipio, 2022

	URRIA/OCTUBRE 2022		AZAROA/NOVIEMBRE 2022		ABENDUA/DICIEMBRE 2022		AZA.22/ABE.22 NOV.22/DIC.22		
	GUZ/TOT	TASA*	GUZ/TOT	TASA*	GUZ/TOT	TASA*	ALD ABS. VAR.ABS.	ALD ERL. VAR. REL.	VAR.TA SA (p.p)
IRUN	3.178	10,88%	3.201	10,96%	3.205	10,98%	+4	0,12%	+0,02
HONDARRIBIA	541	6,64%	542	6,65%	539	6,61%	-3	-0,55%	-0,04
BIDASOA BEHEA/ BAJO BIDASOA	3.719	9,96%	3.743	10,02%	3.744	10,02%	+1	0,03%	0
GIPUZKOA	29.200	8,27%	29.086	8,24%	29.437	8,34%	+351	1,21%	+0,1
EAE/CAE	111.744	10,37%	110.710	10,28%	110.798	10,29%	+88	0,08%	+0,01

Iturria/Fuente: LANBIDE



2021-2027 programazio berria eta Europako Batasunaren Next Generation Funtsak

2022an abiarazi dira SUSPERTZE, ERALDATZE ETA ERRESILIENTZIA PLANARI jarraiki aintzat hartu diren proiektu handiak. EUROPAKO BATASUNAREN NEXT GENERATION EU programaren bitartez finantzatua da Plan hori.

Irungo "Oiaso Hiri Erromatarra" proiektua (THA) Turismo Helmuga Adimendunen araberakoa da, eta haren helburu nagusia da baliabide garrantzitsu batzuk, hala nola Oiasoko Termak eta Oiaso Museoa garatzea. Arkeologia, historia eta kultura ondare garrantzitsu horrek nortasunez hornitzen du turismo helmuga eta zeharkako ikuspegi estrategiko batez bideraturiko ekitaldi eta jardunaldi batzuen bitartez bihurtu da turismo helmuga (THA) Turismo Helmuga Adimendun, hau da, turismo helmuga berritzailea dugu orain, haren eskaintza askotarikoa, jasangarria eta irisgarria da guztientzat eta abangoardiako teknologia baliabideak ezartzen ditu bisitarien eta bertako biztanleen eskura.



Irungo eta Hondarribiko turismo dinamizazioarako Planaren azala (2020-2025)

"Irungo jasangarria, irisgarria eta digitala" proiektuak, hau da, Irungo hiri garraioa elektrifikatzeko eta digitalizatzeko proiektuak, Irungo Udalak bereziki hedatu eta finkatu nahi ditu emisio apaleko hirialdeak eta hiri garraioaren eraldatze digitala eta jasangarria bultzatu. Horretarako, autobus elektrikoak eskuratu eta elektrizitate kargarako guneak antolatu ditu, eta ontziratze ekipamendua ere prestatu du, zerbitzua eta bidaiarien esperientziak hobetzeko, eta hirialdeak oinezkoentzako leku bihurtuz eraberritzeko.

2024 bitartean gauzatuko dira bi proiektuak.



Hiri egitura berritzeko proposamena (Colon Ibilbidea – San Juan Plaza – Irun)



Partzuergoa

Mugikortasun jasangarria

Urteko lehen sei hilekoan bururatu ditu Bidasoa-Txingudi Mugaz Gaineko Partzuergoak Syndicat des Mobilités Pays Basque-rekin elkarlanerako aintzat hartuak zituen lanak, SMARTMOB proiektuaren arabera, eta POCTEFA funtsekin batean, finantzatuak. Zehazki, mugaz gaineko mugikortasunerako mikrogunea ezarri da herritarren zerbitzuan, lurraldearen barrenean eta hartatik egin beharreko joan-etorriak errazteko. Hona hemen URLa:

<https://smartmob.irunhondarribiahendaye.com/>

Irailean ospatu zen Mugikortasunaren Europar Astea, mugikortasunaren gaineko bi tailer berezi antolatu ziren, Irun, Hendaia eta Hondarribiko udal zerbitzuekin eta Balazta eta Recycl'Arte elkarteekin batean:

- **“Village Vélo”**: mugikortasun jasangarriaren aldeko jarduerak jende guztiari zuzenduak, neska-mutikoei bereziki.
- **“Nagusikleta”**: txangoak eta ibilaldiak bizikleta egokitueta, mugikortasunean zailtasunak dituzten adineko pertsonekin.



Nagusikleta Hondarribian

Hiruak BAT laguntzak

2022an lehendabizikoz, HIRUAK BAT laguntzetarako deialdia egin du Partzuergoak turismoa, kultura, gizarte, mugikortasun eta lurralde batasun arloetan hiru hirien agerraldi amankomunak bultzatuko diren mugaz gaineko proiektuak sustatzeko eta laguntzeko. 3 proiektu finantzatu dira lehendabiziko edizio honetan:

- **BI ON BE**. Bidasoa Txingudiko kirol eskaintzaren berri emateko plataforma.
- **BIDAIA**. Euskal Kulturaren inguruko ikuskizuna.
- **IRRATI IRISGARRIA**. Web orriaren egokitzapena euskaraz, entzumen arazoak dituzten pertsonentzat.

Turismoaren sustapena

Partzuergoaren turismo batzordeak bereziki landu ditu aurtengoan mugaz gaineko helmuga duten promozio kanpainen sendotze bideak, eta arrakastaz jardun du udaberri partean merkatu frantses eta espainiarretako sare sozialetan.

Horrez gainera, segida eman zaio sektoreko profesionalei gure lurraldeko turismo baliabideen gaineko informazioa eskaintzeko ahaleginari. Xede horri begira, Mugaz Gaineko Turismoaren gaineko 3 Newsletter zenbaki argitaratu dira, balizko bisitariari informazioa helarazteko.

Berrito zabaldu da Bidasoako Interpretazio Cunea, eta aldizkako erakustaldiak itzuli dira horrenbestez:

- Marrazketen erakusketa, maiatzeko Eskola Festan: “Mugikortasunaren maskota marraz ezazu”.
- Gazteentzako Lehen Mugaz Gaineko Arte Digital Lehiaketara aurkezturiko lanen erakusketa.





Gazteentzako Lehen Mugaz Gaindiko Arte Digital Lehiaketako Saria.

Kirola

Maiatzaren 25ean, Bidasoa-Txingudi 1.000 ikaslek baino gehiagok hartu dute parte Bidasoa-Txingudiko Eskola Olinpiadetan. Formula berria da hau hiru udalerrietako ikasleak kirolaren bitartez hurbiltzeko eta elkartzeko, kirol aniztasuna bizi ohitura gisa bultzatzeko, elkarkidetzeta eta adiskidetasun balioak kirol norgehiagoken eta tailerren bidez sustatzeko eta partaidetzeta saritzat hartzeko.

Kultura eta euskara


Abuztuan BidasoaFolk jaialdiaren 21. ekitaldia antolatu zen eta Euskal Herria, Aragoi, Maroko, Portugal, Galizia eta Andaluziako artistek hartu zuten hartan parte, hainbat eszenatokitan, hala nola Irungo Junkal Plazan, Hondarribiko Arma Plazan eta Hendaiaiko Gaztelu Zaharren.

Euskara bultzatzeko neurriez eta euskarazko hedabideei eta Bertso Eskolari emaniko laguntzez gainera, bereziki aipagarria da, berriandak den aldetik, Hendaian abenduaren 1ean Mintzodromoa lehendabizikoz antolatu izana, "Bidasoan biz(h)itza. Euskararen korronteak busti zaitzala" lelopean eta 100 parte hartzaile baino gehiagok parte harturik.



Mintzodromoa - Hendaia







6

Proiektuak

KREA BIDASOA 2022

Ekintzailtza, berrikuntza eta sormenaren azoka

Apirilaren 7a

Hau izan da **Krea Bidasoa**, ekintzailtza, berrikuntza eta sormenaren azokaren hamahirugarren edizioa, Bidasoa Bizirikek antolatua. 400 pertsonatik gora bildu ohi dira hartara, eta ekimen honen helburua da, hain zuzen, Bidasoaldeko pertsona ekintzaile, enpresa, erakunde publiko eta pribatu, unibertsitate eta ikastetxeen arteko lankidetzeta eta bizipen berritzaileen trukerako gune bat sortzea eta sendotzea, elkarren arteko harremanak indartzeko, besteen esperientziak ezagutzeko, ezagutzak zabaltzeko, eta joera eta negozio aukera berriak identifikatzeko.



Aurtengoan, enpresak eta pertsona ekintzaileak biuro kolpatu dituen osasun krisian bi urte igaro ondoren, **Krea Bidasoak** "Funtsezko Piezak" lelopean aurkeztu ditu jardunaldiak, eta Lego bloke koloretsuen irudi batek islatu ditu funtsezko pieza horiek. Horrenbestez erakutsi nahi izan da eskualdeko enpresek eta pertsona ekintzaileek etorkizuna dutela betiere jomuga.

Lego piezen dinamismoak bereziki laguntzen du piezak elkarrekin modu hobereanean ahokatzeko, etengabe aldatzen ari den enpresa eszenatoki batera guztiz egokitu arte. Pieza horien antzera, desberdinak dira pertsona guztiak, baina gaitasunak eta jarrerak elkarrengana bildurik, askoz ere emaitza garrantzitsuagoak lortzen dira.

Aurtengo edizioan, arte galeria bilakatu da **Krea Bidasoaren** zati bat, 'Fabrikazioaren artea' erakusketa bideratu den aldetik. Berariaz sortua izan da erakutsi den pieza bakoitza, balioak, bizipenak eta berrikuntza aurkezteko. Ahalegin bereziak egin dira industriaren eta fabrikazioaren esparruetan bideratzen den mintzaira ulertu eta artearen, sortze prozesuaren eta erakusketen diskurtsoaren mintzairara bihurtzeko. Oraingo honetan, eskualdeko industria enpresak izan dira obren artistak, eta Helga Massetani, erakusketaren komisarioaren eskutik ezagutu dira, bisita gidatuen bitartez.



PROGRAMA

<p>9:00 - 11:00</p> <p>ETIKA BERRIKUNTZA ETIKA BERRIKUNTZA BERRIKUNTZA BERRIKUNTZA BERRIKUNTZA BERRIKUNTZA</p> <p>9:00 - 11:00</p> <p>OSKAL BERRIKUNTZA OSKAL BERRIKUNTZA BERRIKUNTZA BERRIKUNTZA BERRIKUNTZA BERRIKUNTZA</p>	<p>11:00</p> <p>TRANSFORMAZIÓEN ARTEA TRANSFORMAZIÓEN ARTEA BERRIKUNTZA BERRIKUNTZA BERRIKUNTZA BERRIKUNTZA</p> <p>11:00</p> <p>TRANSFORMAZIÓEN ARTEA TRANSFORMAZIÓEN ARTEA BERRIKUNTZA BERRIKUNTZA BERRIKUNTZA BERRIKUNTZA</p>
<p>12:30</p> <p>TRANSFORMAZIÓEN ARTEA TRANSFORMAZIÓEN ARTEA BERRIKUNTZA BERRIKUNTZA BERRIKUNTZA BERRIKUNTZA</p> <p>12:30</p> <p>TRANSFORMAZIÓEN ARTEA TRANSFORMAZIÓEN ARTEA BERRIKUNTZA BERRIKUNTZA BERRIKUNTZA BERRIKUNTZA</p>	<p>13:00 - 15:00</p> <p>TRANSFORMAZIÓEN ARTEA TRANSFORMAZIÓEN ARTEA BERRIKUNTZA BERRIKUNTZA BERRIKUNTZA BERRIKUNTZA</p> <p>13:00 - 15:00</p> <p>TRANSFORMAZIÓEN ARTEA TRANSFORMAZIÓEN ARTEA BERRIKUNTZA BERRIKUNTZA BERRIKUNTZA BERRIKUNTZA</p>
<p>15:00</p> <p>TRANSFORMAZIÓEN ARTEA TRANSFORMAZIÓEN ARTEA BERRIKUNTZA BERRIKUNTZA BERRIKUNTZA BERRIKUNTZA</p> <p>15:00</p> <p>TRANSFORMAZIÓEN ARTEA TRANSFORMAZIÓEN ARTEA BERRIKUNTZA BERRIKUNTZA BERRIKUNTZA BERRIKUNTZA</p>	<p>15:00 - 17:00</p> <p>TRANSFORMAZIÓEN ARTEA TRANSFORMAZIÓEN ARTEA BERRIKUNTZA BERRIKUNTZA BERRIKUNTZA BERRIKUNTZA</p> <p>15:00 - 17:00</p> <p>TRANSFORMAZIÓEN ARTEA TRANSFORMAZIÓEN ARTEA BERRIKUNTZA BERRIKUNTZA BERRIKUNTZA BERRIKUNTZA</p>
<p>17:20</p> <p>TRANSFORMAZIÓEN ARTEA TRANSFORMAZIÓEN ARTEA BERRIKUNTZA BERRIKUNTZA BERRIKUNTZA BERRIKUNTZA</p> <p>17:20</p> <p>TRANSFORMAZIÓEN ARTEA TRANSFORMAZIÓEN ARTEA BERRIKUNTZA BERRIKUNTZA BERRIKUNTZA BERRIKUNTZA</p>	<p>17:20</p> <p>TRANSFORMAZIÓEN ARTEA TRANSFORMAZIÓEN ARTEA BERRIKUNTZA BERRIKUNTZA BERRIKUNTZA BERRIKUNTZA</p> <p>17:20</p> <p>TRANSFORMAZIÓEN ARTEA TRANSFORMAZIÓEN ARTEA BERRIKUNTZA BERRIKUNTZA BERRIKUNTZA BERRIKUNTZA</p>



Eskualdeko energia plana

Bidasoa Bizirik eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren Ongi Izate eta Lan Hidraulikoetarako Departamentuak eskualdea energia jasangarriaren arloan plangintza eta jarduerak bultzatzeko sinatu den biurteko planari esker landu eta prestatu ahal izan dira diagnostiko txostena, lehenik, eta Bidasoaldeko Energia Plana, ondoren. Eskualdeko Energia Mahaia (Irun eta Hondarribiko Udalak eta Bidasoa Bizirik) onartu zuen plana.



Europar, estatuan eta autonomia erkidegoan energiaren aurrezte, eraginkortasun eta energia berriztagarrien arloan zehazturiko helburu eta irizpideen arabera dira Bidasoaldeko Energia Planaren helburu nagusiak. Helburu horien arabera, energia trantsiziorako prozesu bat abiarazi, bultzatu eta bizkortuko da eskualdeko funtsezko sektoreetan, beharreko jardueren inplementazioaren bidez. Hona hemen, zehazkiago, zertan diren helburu horiek:

*Eskualdeko energia **kontsumoak apaltzea**.

***Kontsumoak aurreztearen arloan** eta energia eraginkortasunean aurrerapenak egitea, eskualdeko sektoreetako deskarbonizazioa bizkortzeko.

***Energiaren arloko konpromisoak eta obligazioak arlo guztietan aintzat hartzea**.

*Udalei, enpresei eta herritarrei energia arloko legeriaren arabera **erantzutea eta aholkuak ematea**.

***Babesik gabeko sektore beharrei laguntza ematea**.

***Beharreko bitartekoak, tresnak eta protokoloak bideratzea**, energiaren prezio eta kontsumoetatik etor litezkeen zailtasun ekonomikoen aurrean beharreko laguntza eman ahal izateko, herritarren energia ahultasuna murriztuz, hala etxeetan nola eskualdeko enpresa sektoreetan. ***Energia trantsizioaren sektore ekonomikoak aktibatzea**.

***Beharreko funtsak erakartzea eta proiektuak bultzatzea**, energia kontsumoen hobekuntza, energia berriztagarrien sorkuntza eta energia eraginkortasuna, ehun ekonomikoa indartzeko bide gisa aintzat harturik.

Eskualdeko energia arloan zuzenean parte hartzen ari diren eragileen jarduera gaitasun errealak eta balizkoak, eta beste eskualdeekin eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekin, Eusko Jaurlaritzarekin edo beste erakunde batzuekin, EEE edo IHOBerekin adibidez, izan litezkeen lankidetzak saioak kontuan harturik, hona hemen etorkizunerako proposaturiko jarduera lerro nagusiak:

1/ Energia trantsizioa udalerrian eta etxeetan

Obligazio juridikoei erantzutea eta etheen sektorean eta, oro har, espazio publikoan energia jasangarriaren arloan hartu beharreko neurriak inplementatzeko beharrezko diren jarduerak bideratzea.

2/ Industria Ekosistema Karbonoan neutroa

Industriei deskarbonizatorako eta energiaren kontsumoa aurrezteko bidean laguntzea, diru-laguntza eta prestakuntzarako aukeren berri emanez.

3/ Zerbitzu sektore eraginkorra eta digitala

Zerbitzuen sektoreko enpresei (ostalaritza, merkataritza eta beste) energiaren arloko eraginkortasuna hobetzeko eta energiaren kontsumoa aurrezteko bidean laguntzea, diru-laguntza eta prestakuntzarako aukeren berri emanez.



4/ Herritar sentsibilizatuak, gaituak eta ahaldunduak

Herritarrak sostengatu, sentsibilizatu eta gaitu, energia kontsumo osasungarrien, giden eta orientazio orokorren zabalkundearen bitartez, energiaren arloan eraginkortasuna hobetzeko.

5/ Eskualdeko Energia Trantsiziorako Agenteen Sarea

Eskualdean energia trantsizioa zainduko duten agenteen sarea bultzatzea, eskualde mailako jardueren koordinazio eta orientaziorako topagune batzuk sortuz.



Garapen jasangarrirako helburuak

Bere betekizuna aztertu eta jarduera 2030 Agendarekin lerrotzeko konpromisoa hartu du Bidasoa Bizirik agentziak. Agentziak erreferentziazat hartuak dituen Xedeak eta Helburuak identifikatu ondoren, bereziki aztertu dira haren erantzuteko era, hobekuntzarako eremuak eta jarraitzeko adierazleak. Azkenik, azterketa honi esker ebaluatu ahal izan da nolako ekarria egiten dion Bidasoa Bizirik 2030 Agendari, eta Ibilbide Orri batean zehaztu du bere jarduera Garapen Jasangarrirako Helburuen bidean lerrotzeko.

Helburuak eta GJHak identifikatzeko prozesuan, 52 Helburu zehaztu dira. 17+1 Garapen Jasangarrirako Helburuen arteko 15en artekoak ditugu helburu horiek.

Azterketa eta balantzeak egin ondoren, Ibilbide Orria zehaztu du Bidasoa Bizirik epe laburrean eta ertainean, jarduera 2030 Agendaren helburuen bidean lerrotzeko:

Epe laburrean:

1. GJHen ikuspegia urteroko memorian txertatzea, dokumentuan berean eta harentzat atal berezi bat sortuz.
2. GJHen ikuspegitik eginiko azterketa webgunean argitaratzea.
3. GJHak 2023ko Kudeaketa Planean aintzat hartzea; alde batetik, bere GJH/Helburuarekin lotuko da ekintza bakoitza, eginiko azterketaren arabera, eta bestetik, sarrera egingo zaie GJHen araberrako hobekuntza-eremuei, balantzean zehaztu bezala.
4. adierazleen eta GJHen zerrendaren berri emango du Behatokiak.

Epe ertainean:

Hurrengo Plan Estrategikorako dokumentazioan, sarrera egingo zaio Bidasoa Bizirik 2030 Agendari egiten dion ekarriari.



THA-Turismo Helmuga Adimenduna

2020an prestatu eta aurkeztu zen Irun-Hondarribiko Turismoaren Dinamizaziorako Plana, 2020-2025 aldirako.

Irun eta Hondarribiko turismo jarduera dinamizatzeko aintzat hartu diren ekintza nagusien garapena aurreikusi da Plan horretan, udalerrri bakoitzaren turismo estrategiak araberan betiere.

Jarduera nagusietako bat da gure Helmugak THA, Turismo Helmuga Adimendunaren zigitua lortzea.

2021aren bukaeran, proiektu pilotu bat landu genuen Basquetour-ekin, THA gidak eskualdeetara egokitzeko. Proiektu haren ondorioetako bat izan zen gure eskualdeko egoeraren gaineko diagnostikoa, eta hura hobetzeko, hainbat jarduera abiarazi eta bideratu beharrak dira turismoaren arloa gurean hobetzeko, irisgarritasunean eta teknologian batez ere. Egun, Basquetour-ekin ari gara lanean THA gure eskualdean ezartzeko. 2022ko bukaeran hitzarmen bat sinatu dugu Basquetour-ekin jarduera batzuei begira. Teknologiaren ardatza hobetzea da jarduera horien helburua.

Aldi berean, Irungo Udalak Europatik jaso dituen Next Generation funtsen bitartez, Helmugako Turismo Jasangarritasunaren aldeko Planetan aintzat harturiko hainbat jarduera abiarazi ditugu [Suspertze, eraldatze eta erresilientzia Planaren laguntzak – Europako Batasunaren NextGenerationEU funtsak (14. Osagarria 1. Inbertsioa)], PSTD DTI IRUN-OIASSO CIUDAD ROMANA proiektuari begira.

THAen saileko jarduerak koordinatzeko eta gauzatzeko lanak dira, Helmugaren lehiakortasuna hobetzeko. 2022-2024 aldiko urteetan berrituko dira jarduera horiek.

Turismo Adimendurako Plan Zuzendaria eta Marketin Plan digitala lantzen hasiak gara gaugerero. Bideratu beharreko jardueren diagnostikoa, estrategia eta plangintza bilduko ditu proiektuak. Honako jarduera hauek aurreikusi dira: aplikazioak, tresna teknologikoen ezarpena, agenda digital baten sorkuntza, presentzia zabalagoa sare sozialetan, online estrategia eta komunikazio planak zehazturik, web posizionamendua, estatistika datuen analisia, irisgarritasun plana, naturako baliabideen balioestea, bizipenak, euskarriak, eta abar...





IRUN-OIASSO CIUDAD ROMANA







7

Bidasoa bizirik kopurutan

Ekintzailletza

602

Arreta harturiko pertsonak

77

Eginiko bideragarritasun planak

352

Ekintzailletza proiektuetan trebaturiko pertsonak

486

Ekintzailletza ekintzetan parte hartu duten ikasleak (LHko ikastetxeetakoak)

Enpresa

50

Lehiakortasunaren hobekuntzarako eta eraldatze digitalerako programan parte harturiko enpresak

57

Informazio eta kontsulta zerbitzuan arreta harturiko enpresak

122

Lehiakortasunaren hobekuntza, berrikuntza eta lankidetzaren dinamiketarako programa eta/edo jardueretan parte harturiko enpresak .

Lanbide gaikuntza eta Enplegua

3.730

Etorkizuna duten profesionalen Gunean arreta harturiko pertsonak

815

Orientatzen, lan eske eta diseinu profesionalen ari diren pertsonak

147

Lan eskaintzak

242

Enpleguko bi asteetan kudeaturiko eskaintzak

Prestakuntza

229

Bertan prestatuturiko pertsonak

37

Prestakuntza jarduerak

21 bertatik bertara

16 online tutoreaz



Merkataritza xehekarria

37

Informazio eta kontsulta zerbitzuan arreta harturiko saltokiak

178

Lehiakortasunaren hobekuntza, berrikuntza eta lankidetzaren dinamizazio programak

Turismoa

60.338

Bisitari bulegoetan


14.409

Zale Facebooken

47.126

Kontsulta Interneten







8

Urtekari Sozioekonomikoa

Behe bidasoa eskualdeak guztira 79.952 biztanle zituen 2022ean, eta horrenbestez, km²-ko 1.117 biztanleko dentsitatera iritsi da dagoeneko.

LANBIDEk eskainitako datuen arabera, 37.215 lagunek osatzen dute Bidasoa eskualdeko biztanleria aktiboa, 2022an. LANBIDEn izena emaniko langabetuen kopuruari dagokionean, abenduaren 31an 3.744 langabetu dira guztira, eta horrek esan nahi du %10,02 ingurukoa dela langabezia tasa biztanleria aktiboaren gainetik. Era berean formalizaturiko kontratuak 19.463 dira guztira. Aipatzekoa da, Gipuzkoan guztira eginiko kontratuei dagokionean %7,8koa dela eskualdeko kontratuen partaidetza, aurreko urtekoa baino baxuagoa izanik ehuneko hori.

Gizarte segurantzarako afiliazioak 24.906 pertsona dira, 19.682 Irungo udalerrian eta 5.224 Hondarribiko udalerrian.

Eskualdeko hezkuntza zentroetako ikasleak 11.981 ziren. Matrikulazioen %64 ikastetxe publikoetan egin da eta gainerako %36 zentro pribatuetan. Bidasoako kanpusean (Mondragon Unibertsitatea) 305 ikasle ari dira guztira, bai eskualdekoak bai beste udalerrri batzuetakoak.

Eskualdeko enpresa ehuna, berriz, 6.317 establezimenduk osatzen dute 2022ean; horietan 26.016 langile ari dira, eta horietatik %77a hirugarren sektorean ari da lanean.

Lehen sektoreari dagokionean, aipatzekoa da, Hondarribiko ontzidiak aurrera eramaniko arrantza jarduera bikaina, 24 ontzi eta 279 marinelekin, kontuan izanik soilik baxurako azpisektorean jarduten dutela. Kanpainan 3.811 tona arrain atzeman zituzten.

Eskualdeko industri sektorea 375 establezimenduk osatua dago eta 3.930 lagun ari dira horietan lanean. 3.788 Irunen eta 142 Hondarribian.

Eraikuntzari dagokionean, eskualdean 909 establezimendu daude eta 1.568 langile ari dira horretan lanean.

Eskualdeko hirugarren sektorea (zerbitzuak) 4.942 establezimenduk osatzen dute guztira, eta 20.082 lagun ari dira horretan lanean.

Sektore horren barnean aipatzekoak dira:

Merkataritza

Txikizkako merkataritza establezimenduak 899 ziren guztira, horietatik %84 Irunen daude. Eskualdeko merkataritza dentsitatea 11,24 establezimendu da 1.000 biztanleko.

Turismoa

2022. urtean 44 ostatu establezimendu zeuden eskualdean. Establezimendu horiek 2.434 plaza eskaintzen dituzte guztira. Urte berean zehar, 1,7 egun izan dira bisitariek batez beste eman dituzten gauak.

Eskualdeko hotel okupazioak %75ko okupazioa izan zuen urtean batez beste.

Garraioa eta Logistika

Eskualdean 293 dira errepideko merkantzien garraioan diharduten enpresak, horietatik %67ak ibilgailu astunak erabiltzen ditu eta gainerako %33ak ibilgailu arinak.




08. Demografia eta gizartea

08.1. Demografia

Behe Bidasoako biztanleria, biztanleriaren %-ekoa

2022




Iturria: Irungo Udala, Hondarribiko Udala

	Irun		Hondarribia		Behe Bidasoa	
	Bizt.	%	Bizt. Kop.	%	Bizt. Kop.	%
Sexua						
• Gizonak	30.851	49	8.425	49,7	39.276	49,1
• Emakumeak	32.142	51	8.534	50,3	40.676	50,9
Guztira	62.993	100	16.959	100	79.952	100
Adina						
• 0-14	7.989	12,68	2.090	12,32	10.079	12,61
• 15-29	9.586	15,22	2.642	15,58	12.228	15,29
• 30-44	11.396	18,09	2.703	15,94	14.099	17,63
• 45-59	15.431	24,50	4.176	24,62	19.607	24,52
• 60-74	11.324	17,98	3.249	19,16	14.573	18,23
• 75-89	6.334	10,06	1.882	11,10	8.216	10,28
• 90 eta gehiago	933	1,48	217	1,28	1.150	1,44
Guztira	62.993	100	16.959	100	79.952	100

Iturria: Irungo Udala, Hondarribiko Udala

Biztanleriaren bilakaera (2011 urtea: basea 100)

2012-2022



Iturria: Irungo Udala, Hondarribiko Udala, INE eta Eustat



Azalera eta biztanleriaren dentsitatea Behe Bidasoan **2022**

	Azalera (km²)	Biztanleria	Dentsitatea (birt./km²)
Behe Bidasoa	71,6	79.952	1.116,7
Irun	42,8	62.993	1.471,2
Hondarribia	28,8	16.959	588,9
Gipuzkoa	1.980,3	724.418	365,8

Iturria: Eustat, Irungo Udala, Hondarribiko Udala

08.2. Prestakuntza

Matrikulazioak unibertsitatez kanpoko prestakuntza arautuko zentroetan **22/23 ikastaroa**

	Irun			Hondarribia			Behe Bidasoa		
	Publ.	Prib.	Guzt	Publ.	Prib.	Guzt	Publ.	Prib.	Guzt
Haur/lehen/bigarren hezkuntza (1)	4.647	2.605	7.302	1.179	863	2.042	5.826	3.518	9.344
BATXILERGOA	589	319	908	135	113	248	724	432	1.156
E.M.H.Z. (2)	456	105	561	-	-	-	456	105	561
G.M.H.Z. (3)	663	127	790	-	-	-	663	127	790
Beste batzuk	--	130	130	-	-	-	0	130	130
Total	6.355	3.336	9.691	1.314	976	2.290	7.669	4.312	11.981

(1) Haurtzaindegia eta 2 urtekoen gelak barne daude; (2) Erdi mailako prestakuntza zikloak; (3) Goi mailako prestakuntza zikloak.
Iturria: Irungo Udala, Hondarribiko Udala,

Behe Bidasoako ikasleen matrikulazioak unibertsitateetan **22/23 ikasturtea**

	matrikulaturiko ikasle kop
Euskal Herriko Unibertsitatea (EHU)	1.040
Gipuzkoako Kanpua	704
Bizkaiako Kanpua	179
Arabako Kanpua	157
Deustuko Unibertsitatea (Donostiako Kanpua)	171
Nafarroako Unibertsitatea (TECNUM, Donostiako Kanpua)	53
Mondragon Unibertsitatea	110

Iturria: UPV/EHU, Nafarroako Unibertsitatea, Deustuko Unibertsitatea, Mondragon Unibertsitatea

Mondragon Unibertsitatearen Bidasoako Kanpua **22/23 ikasturtea**

	matrikulaturiko ikasle kop.
Gradua Enpresa Administrazio eta Zuzendaritzan	176
Ekintzailtza eta Berrikuntza Lidergo gradua	129
Guztira	305

Iturria: Mondragon Unibertsitatea



09. Lan merkatua

09.1. Enplegua

Biztanleria aktiboa Behe Bidasoan	2022
Irun	28.997
Hondarribia	8.218
Behe Bidasoa	37.215
Gipuzkoa	348.459
EAE	1.068.886

Iturria: Lanbide

09.2. Kontratazioa

Behe Bidasoa eta Gipuzkoan formalizatutako kontratuak

	2018	2019	2020	2021	2022
Behe Bidasoa	27.498	26.655	19.167	21.424	19.463
Gipuzkoa	291.885	293.781	207.769	258.260	250.463
% Eskualde/Gipuzkoa	9,4	9,1	9,2	8,3	7,8

Iturria: Lanbide

Behe Bidasoan kontraturiko pertsonen profila

Sexua	Emakumea (52%)
Adina	25 urtetik 44 urtera (49%)
Kontratuaren iraupena	Zehaztutako iraupena (66%)
Kontratuaren lege sailkapena	Behin-behineko zirkunstantziala (68%)
Ekonomi sektorea	Zerbitzuak (89%)

Iturria: Lanbide

09.3. Gizarte segurantzarako afiliazioak

Afiliazioak Behe Bidasoan, motaren arabera

	2018	2019	2020	2021	2022
Erregimen orokorra	16.841	17.424	16.863	17.608	18.023
Autonomoak	6.148	6.007	6.021	5.985	5.873
Erregimena (Nekazaritzakoa, Itsasoa eta Etxeko enpleg.)	1.018	1.017	1.020	1.023	1.010
Guztira	24.007	24.448	23.904	24.616	24.906

Iturria: Gizarte Segurantzako Diruzaintza Orokorra



09.4. Langabezia


Lanbiden erregistraturik dauden langabezia dauden pertsonak

	2018	2019	2020	2021	2022
Behe Bidasoa	4.029	3.981	4.374	4.027	3.744
Irun	3.431	3.391	3.744	3.433	3.205
Hondarribia	598	590	630	594	539

Iturria: Lanbide

Langabezia tasa Behe Bidasoa, Gipuzkoa eta EAEan

2012-2022



Langabezia tasa

2022

EAE	10,29%
Gipuzkoa	8,34%
Behe Bidasoa	10,02%
Irun	10,98%
Hondarribia	6,61%

Iturria: Lanbide, 2021ko biztanleria aktiboa kalkulatzeko duen metodologia egokitzean oinarrituta

Langabezia dauden pertsonen profila Behe Bidasoan

2022

Sexua	Emakumezkoa (58%)
Adina	44 urte baino gehiago (49%)
Ikasketa maila	Bigarren hezkuntza (66%)
Jarduera sektorea	Zerbitzuak (75%)
Multzo profesionala	Zaharberritze-zerbitzuko langileak, saltzaileak, etab (29%)

Iturria: Lanbide



10. Enpresa ehuna

10.1. Establezimenduak eta enplegua 2022

Establezimenduak jarduera motaren arabera: 6.317

Nekazaritza, arrantza eta abeltzaintza: %1,4 Industria: %6 Eraikuntza: %14,4. Zerbitzuak: %78,2

Enplegua jarduera motaren arabera: 26.016

Nekazaritza, arrantza eta abeltzaintza: %1,7 Industria: %15,1 Eraikuntza: %6 Zerbitzuak: %77,2

Iturria: Eustat

10.2. P.I.B.

Barne-produktu gordina BPG, per capita, (prezio arruntak €)

2020*

	per capita BPG (€)	Indizea (EAE=100)
Irun	28.073	86
Hondarribia	23.914	73
Behe Bidasoa	27.159	83
Gipuzkoa	33.433	102
EAE	32.702	100

Iturria: Eustat *azkeneko datua



11. Nekazaritza, abeltzaintza eta arrantza


11.1. Nekazaritza

Usategiak Behe Bidasoan: kopurua eta tamaina 2022

Usategi kopurua	595
Batez besteko tamaina (Hak)	1,79

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia

Azalera osoa Behe Bidasoan, motaren arabera 2022



Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia

11.3. Abeltzaintza

Abelburuak Behe Bidasoan: kopurua eta mota 2022

Abelburuak, kopurua	4.870
Abelburuak, abereen arabera	Ardiak (56%), behiak (26%)

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia

11.2. Arrantza

Arrantza jarduera 2022

Ontziak	
Artisau erara	9
Azalera	15
Guztira	24
Marinelak	
Artisau erara	41
Azalera	238
Guztira	279
Atzemandakoak	
Bolumena (kilotan)	3.811.159,10
Arrain motak	hegaluzea (63%), antxoa (6%), berdela (25%), sardina (0,7%)

Iturria: Hondarribiko San Pedroko Marinelen Kofradia



12. Industria


Industri establezimenduak eta enplegua, jarduera motaren arabera

2022


	Irun		Hondarribia		Behe Bidasoa	
	Establ.	Enpleg.	Establ.	Enpleg.	Establ.	Enpleg.
• Elikagaiak, edariak eta tabakoa	33	553	6	50	39	603
• Ehungintza, jantzigintza, larrua eta oinetakoak	25	88	4	5	29	93
• Egurra eta artelazkia	11	40	1	-	12	40
• Papera	3	26	-	-	3	26
• Arte grafikoak eta euskarri grabatuen kopia	25	54	3	5	28	59
• Industria kimikoa	3	35	-	-	3	35
• Kautxua eta plastikoak	21	441	1	-	22	441
• Metalikoak ez diren beste produktu mineral batzuk	4	33	1	-	5	33
• Burdin produktuak, altzairua...	1	2	-	-	1	2
• Produktu mineralak, makineria eta ekipamendua izan ezik	80	1.118	1	-	81	1.118
• Produktu informatikoak, elektronikoak eta optikoak	13	251	-	-	13	251
• Material eta ekipamendu elektrikoak	6	60	-	-	6	60
• Beste ataletan ez dagoen makineria eta ekipamendua	17	224	2	-	19	224
• Motordun ibilgailuak, atoiak eta erdiatoiak	4	240	-	-	4	240
• Garraio-materiala	2	*	1	*	3	-
• Altzariak eta manufakturako beste industria batzuk	33	105	4	5	37	110
• Makineria eta ekipamenduaren konponketa eta instalazioa	20	80	30	47	50	127
• Energia elektrikoak, gasa, lurrina eta aire girotuaren...	2	*	2	*	4	-
• Ura hartu, araztu eta banatzea	4	69	1	-	5	69
• Ur zikinak biltzea eta tratatzea	9	54	2	2	11	56
Industri Guztira	316	3.788	59	142	375	3.930

Iturria: Eustat

Establezimenduak



Enplegua



- Elikagaiak, edariak eta tabakoa
- Papera eta arte grafikoak
- Kautxua eta plastikoak
- Metalurgia eta prod. Metalikoak
- Material eta ekipamendu elektrikoak
- Manufakturako beste industria batzuk
- Beste batzuk

Iturria: Eustat




13. Eraikuntza

Establezimenduak eta enplegua eraikuntza sektorean

2022

Eraikuntza Guztira	Irun		Hondarribia		Behe Bidasoa	
	Establez.	Enplegua	Establez.	Enplegua	Establez.	Enplegua
	768	1.328	141	240	909	1.568

Iturria: Eustat



Iturria: Eustat



14. Merkataritza


Txikizkako merkataritza establezimenduak Behe Bidasoan, jarduera motaren arabera 2022

	Irun	Hondarribia	Behe Bidasoa
Elikagaiak, edariak eta tabakoa	297	58	355
Ehungintza, jantzigintza, oinetakoak eta larru-dendak	144	29	173
Farmazia, drogeria, lurrin-dendak	40	7	47
Etxeko ekipamendua	59	9	68
Liburuak, egunkariak, paper-dendak	26	5	31
Txikizkako beste dendak	143	27	170
Txikizkako jarduera, establezimenduz kanpo*	46	9	55
Txikizkako Merkataritza Guztira	755	144	899

Iturria: Eustat

*vending, azoka txiki ibiltarietako salmenta, online eta katalogoan zehar salmenta

Txikizkako merkataritza establezimenduak Behe Bidasoan



Iturria: Eustat

Merkataritza dentsitatea, jarduera mota nagusien arabera, (establez. 1.000 bizt.) 2022

	Irun	Hondarribia	Behe Bidasoa
Elikagaiak	4,71	3,42	4,44
Ehungintza, jantzigintza, oinetakoak eta larru-dendak	2,29	1,71	2,16
Farmazia, droguería, lurrin-dendak	0,63	0,41	0,59
Etxeko ekipamendua	0,94	0,53	0,85
Liburuak, egunkariak eta papertegia	0,41	0,29	0,39
Txikizkako beste dendak	2,27	1,59	2,13
Txikizkako jarduera, establezimenduz kanpo*	0,73	0,53	0,69
Guztira	11,99	8,49	11,24

Iturria: Eustat, Irungo Udala, Hondarribiko Udala

*vending, azoka txiki ibiltarietako salmenta, online eta katalogoan zehar salmenta




15. Turismoa

Behe Bidasoan eskaintzen diren establezimenduak eta ostatu plazak 2022

	Irun		Hondarribia		Behe Bidasoa	
	Establez.	Leku kop.	Establez.	Leku kop.	Establez.	Leku kop.
• Hotelak	6	622	10	391	16	1.013
• Pentsioak	7	192	1	8	8	200
• Nekazal etxeak	1	12	6	63	7	75
• Landa etxeak	2	24	5	68	7	92
• Apartamentuak	1	2	1	50	2	52
• Kanpinak	-	-	2	790	2	790
• Aterpetxeak	1	60	1	152	2	212
Ostatu guztira	18	912	26	1.522	44	2.434

Iturria: Bidasoa Turismo

Behe Bidasoan eskaintzen diren ostatu plazak 2022



Iturria: Bidasoa Turismo

Batez besteko okupazioa eta batez beste emandako datuak Behe Bidasoako hoteletan 2022

	batezbestekoa / maximoa
Okupazio maila hoteletan %	74,87% / 96,02% (abuztua)
Emandako gauak (egun kop.)	1,68 egun

Iturria: Bidasoa Turismo

Ostalaritza establezimenduak Behe Bidasoan 2022

	Irun		Hondarribia		Behe Bidasoa	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
• Tabernak	132	43,9	23	23,5	155	38,8
• Jatetxeak	162	53,8	73	74,5	235	58,9
• Beste batzuk	7	2,3	2	2,0	9	2,3
Ostalaritza Guztira	301	100,0	98	100,0	399	100,0

Iturria: Eustat



16. Garraioa eta azpiegiturak

Garraioa Behe Bidasoan

2022

Hiriko eta hiri arteko autobusak	Bidaiari kop.
Irun-Irun	1.564.396
Hondarribia – Donostia (N1)	815.078
Hondarribia – Donostia (AP8)	270.180
Hondarribia – Donostia (EHU)	123.057
Hondarribia – hospital – Txingudi MG	87.354
Irun – Donostia (N1)	605.805
Irun – Donostia (EHU)	19.666
Hondarribia – Irun	936.412
Hondarribia – Anoeta	3.201
Hondarribia – Donostia (gauekoa)	42.224
Hondarribia – Irun (gauekoa)	15.112
EuskoTren	
Irun	2.459.653
Donostia-Hendaia	8.017.861
ADIF	
Eskualde artekoak	20.709
Linea handiak	20.674
Aldirikoak	590.019
Itsas Linea	
Hondarribia-Hendaia*	204.000
Donostia-Hondarribiko aireportua	
Bidaiariak	5.579
Operazioak	383.584

Iturria: AUIF, Ekialdebus, EuskoTren, Renfe, Jolaski* (azken datua), Aena

Errepideko merkantzien garraioan diharduten enpresak

2022

	Irun		Hondarribia		Behe Bidasoa	
	Enpresak	Kamioak	Enpresak	Kamioak	Enpresak	Kamioak
Ibilgailu arinak	87	119	10	15	97	134
Ibilgailu astunak	178	1.301	18	44	196	1.345
Guztira	265	1.420	28	59	293	1.479

Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia



Errepideetako trafikoa

Ibilgailuen eguneroko batez besteko zirkulazioa Behe Bidasoko errepideetan barrena 2022

Irungo ordainlekua (A8)	Ibilgailu kop.
Donostiara bidean	21.720
Frantziara bidean	20.937
Guztira bi norabideetan	42.657
Beste errepide batzuk*	
N-1	37.184
N-638 (Irun-Hondarribia)	24.506
N-121-A	13.365

Iturria: Bidelan, Gipuzkoako Foru Aldundia

*2021ko azkeneko datuak

17. Zerbitzuak

Zerbitzuen establezimenduak, jarduera motaren arabera 2022

	Irun	Hondarribia	Behe Bidasoa
Merkataritza, garraioa eta ostalaritza	2.009	415	2.424
Informazioa eta komunikazioak	94	21	115
Finantza jarduerak eta aseguruak	104	28	132
Higiezinen jarduerak	114	32	146
Jarduera profesionalak eta laguntzaileak	683	211	894
Administrazio Publikoa, Hezkuntza eta Osasuna	485	155	640
Jarduera artistikoak eta beste zerbitzuak	493	98	591
Zerbitzuak Guztira	3.982	960	4.942

Iturria: Eustat



18. Ekipamenduak

2022

Kirol ekipamenduak	
Artaleku eta Azken Portu polikiroldegia, bazkide kopurua	9.619
Hondartza polikiroldegia, bazkide kopurua*	4.959
Hondarribiko Kirol Portua, eskalen kopurua	355
Hendaiako Kirol Portua, eskalen kopurua	1.128
Kultur eta aisialdi ekipamenduak	
OIASSO Erromatar Museoa, bisitari kopurua	28.825
Plaiaundiko Parke Ekologikoa, bisitari kopurua (azkeneko datua)	12.693
Liburutegiak	
Carlos Blanco Aguinaga CBA Kultur Gunea	
• Bisitari kopurua	130.475
• Bazkide kopurua	33.410
Zuloaga Etxea	
• Bisitari kopurua	56.422
• Bazkide kopurua	8.256
Amaia Kultur Zentroa	
• Erabiltzaileak	42.512
• Jarduerak	422
Irungo Udal Musika Eskola eta Kontserbatorioa	
• Konserbatorioa, ikasleak	90
• Musika eskola, ikasleak	500
Hondarribiko Musika Eskola, ikasleak*	480
Ficoba, Erakustazoka	
• Azokak/Erak.	14
• Bilerak	270
• Bisitariak	142.188

*Azken datua





Esker onak

Aena – Donostia-Hondarribiko Aireportua

Auif

Deusto Unibertsitatea

Egailan

Ekialdebus

Euskotren

Eustat –Euskal Estatistika Erakiunea

Ficoba, Gipuzkoako Erakustazoka

Gipuzkoako Foru Aldundia

Gizarte Segurantzako Diruzaintza Orokorra

Hondarribiko San Pedroko Marinelen Kofradia

Hondarribiko Udala

Ine

Irungo Udala

Jolaski

Lanbide

Mondragon Unibertsitatea

Nafarroako Unibertsitatea

Renfe

Upv/Ehu



Bidasoa activa
Bidasoa bizirik

Hendaia Kalea, 8
Palacio Ducoureau,
20301 Irun, Gipuzkoa

943 509 600

bidasoa-activa@bidasoa-activa.com

www.bidasoa-activa.com